

411 zenbakia, 2000ko maiatzaren 26a
JARDON ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara



Virginia Imaz Cirque du Soleilen

Oihulari Klowneko kidea
munduko zirko ospetsuenean

Citroën Xsara Picasso berria. Estilo eta proposamenetan, berritzaile

Irteera
eskaintza berezia



CITROËN
XSARA

Picasso




CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara
Tf. 943 76 47 49 / 73

Presoterapia

Informa zaitez.

Tratamendu berezia arazo bakoitzerako:

- Drenaje linfatikoa
- Zainetako zirkulazioaren drenajea
- Zelulitisaren kontrakoa
- Argalduostekoa
- Kongestioa kentzekoa
- Barize txikiak



Barrenkalea 25. Telefonoa: 943 76 16 97



MAKINA
ERREMITAREN
INSTITUTUA

INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa
Tlf: (34) 943.744132 - Fax: (34) 943.744153
e.mail: amaia@fmh.es

2000/2001 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- MEKANIZAZIOA

**Ekainaren 1ean atek zabalik
Arratsaldeko 7etan**



Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 12ra, biak barne



Izan ala ez izan (haurrak)

Ainhoa Agirreazaldegi / Ikaslea

Adinaren arabera (nire adinaren arabera) aldatu da nik haurrekin izan dudana harremana: 17 urte bete nituen artean, haurrei ez nien begiratu ere egiten. Ez zen ikusi nahi eza, baina ez zitzaizkidan burua jiratu eta begiradaxo bat botatzeko adina deigarriak iruditzen. Baina halako batean, haurren batek grazia egin izango zidan, handik aurrera ez baitiet begirik kendu.

Haurren irribarrea dagoen gauzarik zoragarriena iruditzen zitzaidan, eta ama bat haurrari bularra ematen dagoen gauzarik hunkigarriena. Bost urteko haur baten inozentziak, bihotza ukitzen zidan. Izugarritzko grazia egin zidan, "berria al da jantzita duzun atorra?" galdetu eta "bai, bihar erosi nuen" esan zidan haurrak: ordaintzeke izango zuen oraindik.

Miresmena eta inbidia ere sentitzen nituen, hiru urterekin ezin hobeto mintzatzen zen haurra entzuten nuenean, edo egunero irribarretsu, jostari eta alai zegoen haurra ikustean. Miresmena eta inbidia, bai haurragatik, bai guraso-

engatik. Nireak ere halakoak izango al ziren, etortzen zirenean?

Guztia eta guztiak, zoragarriak egiten zitzaizkidan. Orain gutxi, taberna batean kafea hartzen ari nintzela, ia ordu eta erdiz hiru haur nire ondoan izan nituen arte. Liburu bat irakurtzen ari nintzen, denbora betetze aldera. Hasieran, beti bezala, grazia egiten zidaten haurrek. Hirurak amarekin zeuden, bakoitza berearekin. Hiru amak ere xarmagarriak iruditu zitzaizkidan: haurrei merienda eman zieten, kontutxoak egin... Baina gero guztia aldatu zen.

"Adinaren arabera aldatu da nik haurrekin izan dudana harremana: 17 urte bete nituen artean, haurrei ez nien begiratu ere egiten. Handik aurrera ez diet begirik kendu"

Amak hizketan hasi ziren, beraien artean, beraien kontu(txo)ez. Haurrak aspertzten hasi ziren. Gero kexuka. Gero nigarrez. Amak ez ziren nigarrez hasi, baina bai kexuka: "Isildu zaitez, kafea hartzen ari naiz", batek. "Orain nire txanda da, egizu lo", besteak. "Hobe duzu pakea ematea, bestela haserretu egingo naiz", hirugarrenak.

Amorrua sentitzen hasi nintzen. Haurrek traba egiten zidaten, baina amek haserrez ninduten. Haurrak ez dira tabernan egoteko jaio, eta ez dira tabernan edukitzeko ekarri behar. Nola dira gai kafea hartzeko, haurrak nigarrez ari direla ikusita?

Gero pentsatzen hasi nintzen: eguneko hogeita lau orduetan antzera izango da: bularra ez bada bainua, edo oihalak, edo papila, edo nigarra, edo kantuak, edo ipuinak, edo... Emakume hauek nekatuta bizi behar dute.

Nik behintzat, kafea etxean hartzen ikasi arte, ez nuke haurrik ekarri nahi. Ah, eta eskerrik asko nire gurasoei, hazi nintzen apurra tabernan hazi ez nintzelako.<

barruan



Ignacio Dobao

Jubenil futbol taldekoa

"Aurrera Vitoriaren eskaintzak konbentzitu nau, interes gehien azaldu dutelako"

29.



Virginia Imaz

Cirque du Soleil-eko pailazoa

"Zirkoetako pista ezagutu dut, pailazoen etxea, azken batean"

34.



Begoña Mujika

Tabernaria

"Tabernari lanian, gogorrena, edanda datorren jendia aguantatzia da"

37.

zorion agurrak



Gaizka Urzelai
31n 8 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta
Danel.



Malen Gallastegi
31n 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Santamaria
26an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



Iri
Aupa Iri! 27an 14 urte. Urte askotarako! Koadrila eta, batez ere, "gu".



Joseba Sasigain
29an 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta, batez ere...



Zumaia Elgoro
30ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Aristi
28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ana Etxaniz
29an 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta
Mikel.



Jone Agirrezabal
31n 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Arazonaga
26an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Beñat.



Paula Aranzabal
26an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ander Plazaola
30ean 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta
Juanita.

ESKER ONA

Kontxa Aranguren Campos

Bergaran hil zen
2000ko apirilaren 15ean,
91 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
Mizpirualde egoitzako zaintzaileei,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA
Ana Montesinos Martinez
Maiatzak 21, 75 urte
Jesus Maria Prieto Martin
Maiatzak 24, 34 urte

jaiotakoak

BERGARA
Iker Barquero Mertzan
Maiatzak 16

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jate-txea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **"Todos los gatos son pardos"** flamenko ikuskizuna bihar, zapatua, 20:00etan Arrasateko Amaia antzokian, **Arrieritos** konpainiarekin.

MUSIKA

► **Misery Loves Co, Kill II This eta Earhone 9** taldeak gaur, eguakitzan, 22:00etan Jam aretoan. Bihar, zapatua, **Peter & The Test Tube Babies**, ordu eta tuki berean.

► **Hechos contra el decoro** eguaztenezan, hilak 31, 21:00etan Oñatiko Gaztelekuan.

► **Musika Eskolako** ikasle-en kontzertuak. Martitzenezan, 19:00etan, piano kontzertua Zabalotegin; eguaztenezan, ordu berean, akordeoi emanaldia Musika Eskolan, eta egue-nean, hilak 1, instrumento ezberdineko kontzertua 19:00etan Zabalotegin. Ekainaren 2an, 19:30ean, kantu emanaldia Zabalotegin.

► **Ladybug Transistor** ekainaren 1ean, 22:00etan, Go-Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Daniel Laskurainen** margoak Bilboko Lumberras galerian (Henao kalea, 3) maiatzaren 30era arte.

KONTZERTUA

Arima Beltza

- Domekan, hilak 28, 19:00etan
- Pol-Pol tabernan

Kultur Errotaren programazioaren barruan, Arima Beltza elgoibartar blues taldearen emanaldia izango da domeka iluntzean Pol-Polen. Kultur Errota egitasmoa euskara elkarte eta herri aldizkariaren Topagunea elkarteko kultur gintza arloak antolatzen du duela bi urtetik. Herriz herriko ibilbide horien barruan kokatzen da domekako kontzertua. Aitor Badiola (kitarra eta ahotsa), Lander Trinidad (kitarra), Iñigo Araujo (baxua) eta Ion Gurrutxaga (bateria eta ahotsa) gazteek osatzen dute Arima Beltza blues taldea. Asteazken bizpahiru aldiz elkartzen dira beren kantak entsaiatzeko. Nagusiki blues musika lantzen duten arren, beste estilo batzuk ere jorratzen dituzte euren abestietan, rocka eta popa esate baterako. Abesti propioez gain, beste hainbat bertsiore ere jotzen dituzte eta ingelesez abesten du-

te. Laister bi urte beteko dira taldea osatu zenetik, "izena joan zen udan jarri genion taldeari. Gau batean Arima Beltza bururatu, gustatu eta horrela geratu zen" dio Ion Gurrutxaga bateriak.

Taldeak ez ditu zuzeneko emanaldi gehiegi eskaini oraingoz. Gurrutxagaren hitzetan, "ez daukate zerikusirik handirik entsaiuek eta kontzertuek. Kontzertua ondo iritezko entsaiuetan %100 eman behar duzu, kontzertuan beti zerbait gutxiago ematen da eta. Gainera, jendearekin jartzak errespetua ematen dizu. Hala ere, lehendabiziko abestiak jo ondoren, oso gustora sentitzen zara eta azkenerako amaitzea kostatzen zaizu". Domekan entzuleekiko lotura hori lortzen ahalegintzen dira Elkgoibartik etorritarrak.



Arima Beltzak Pol-Polen joko du domeka iluntzean.

► **Txomin Pinillaren margoak** Nahikarin.

► **Fernando Arenaza pintore** bergararraren "Irtenbiderik bai?" izenburuko margo erakusketa Donostiako Digitex arte galerian (Usandizaga kalea, 5).

LEHIAKETAK

► **Arrasateko komiki ez sexisten III. lehiaketa.** Lanak 17x24 cm.ko edo proportzio bereko formato bertikalean aurkeztuko dira eta bitik lau orri bitarte hartuko dituzte.

Testuak euskaraz zein gaztelerez aurkez daitezke. Argibide gehiago 943 79 09 00 zenbakian.

► **Bergara Hiria argazki lehiaketa.** Zuribeltzeko eta koloretako argazkiak onartuko dira (mota bakoitzeko lau

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean BERGARA 943 76 28 92



Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

gehienez). Lanak 30x40 cm.ko kartulinar aurkeztu beharko dira. Kategoria bakoitzeko hiru onenentzat eta herriko onenentzat ere sariak izango dira. Lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira maiatzaren 31 baino lehen. Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Kantu ikastaroa Mikel Markezen eskutik**, Jardun elkarteak antolatuta. Argibideak: 943 76 08 19.

DEIAK

► **Ivan Forero "Justicia y paz"** batzordeko kideak Kolonbiari buruzko hitzaldia emango du eguaztenean, hilak 31, 19:30ean Kultur Etxean. Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

► **Txapa Irratia**. "Psikosiaren bidetik" irratsaioan **Mikel Urdangarini** egindako elkarrizketa emitituko da hilaren 31n, 21:00etatik aurrera.

► **Sendabelarrei buruzko hitzaldia** datorren eguenean, ekainak 1, 15:30ean Kartzela Zaharrean.

► **Arrasateko Ekin Emakume taldeak** antolatuta, ekainaren 3an eta 4an Zaragozara bidaia egingo da. 943 77 12 38.

► **Ipuin kontaketa** eguene-

an, ekainak 1, 18:30ean Arrasateko AED elkartearen egoitzan (Pablo Uranga, 4), Ixabel Agirresaroberen eskutik.

► **Euskal presoan** aldeko manifestazio nazionala bihar, zapatua, Donostian. Txartelak Arranon eta Pol-Polen.

► **Kilometroak 2000**. Azpeitiko Ikas Berri ikastolak urriaren 1ean ospatuko den Kilometroak 2000ko arropak eta konplementuak salgai jarri ditu Barrenkalean (Ilehengo Kutxan) zabalduetako dendan.

OHARRAK

► **Udala**. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Ekainaren 1etik aurrera errekararekin eskatuko da.

► **Musika Eskola**. Matrikula epea zabalik izango da ekainaren bukaerara arte.

KINTADAK

► **1960an jaiotakoan afaria** maiatzaren 27an Tartufon. Aurretik, 21:15ean, taldeko argazkia aterako da. Izen-ematea Tartufon bertan.

► **1942an jaiotakoan afaria** maiatzaren 27an, 21:00etan Azpeitxi jabetxean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinan. Izen-ematea Azpeitxi jabetxean.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Scream 3

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Oriente es oriente

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Colgadas

Eguakitza: 22:00.

28 dias

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Al limite

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

A cualquier otro lugar

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Slam eta Ghost dog

(zine maratona)
Eguakitza: 22:30.

Las normas de la casa de la sidra

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Toy story 2

Domeka: 17:00.

AZKOITIA. Baztartxo

Colgadas

Eguakitza: 22:00.
Zapatuan: 22:00

Las normas de la casa de la sidra

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 20:00.



SCREAM 3

Zuzendaria: Wes Craven.

Aktoreak: David Arquette, Neve Campbell, Courtney Cox. ≥18 urte

Woodboro herrian izandako gertakari beldurgarrien ondoren, *Sidney* (Neve Campbell) toki lasaia batera bizitzera alde egin du, iragana ahazteko asmoarekin. Orain arazoak dituzten emakumeei, telefonoz, laguntza eskaintzen lan egiten du. Baina dei misterioitsu bat jasoko du eta gauza benetan arraroak gertatzen hasiko dira...

ORIENTE ES ORIENTE

Zuzendaria: Damien O'Donnell.

Aktoreak: Om Puri, Linda Basset, Jordan Routledge. ≥18 urte

Iazko Valladolideko Zine Jaialdian sari nagusia eskuratu zuen filme honek amaiera emango die aurtengo zineklubeko emanaldiei. 1970ko hamarkadaren hasieran giro-tuta, Ingalaterrako iparraldean bizi den Pakistaneko familia baten gorabeherak kontatzen zaizkigu, kritika soziala eta umorea uztartuz.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txarelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Maitane Arizabaleta eta Nere Goñi Udaleko ingurumen eta basogintza arloan praktiketan dabiltza martxoaren 20tik. Herriko zuhaitzak identifikatu eta inbentariatu bezalako lanak egin dituzte. Horrez gain, Jardunek antolatutako zuhaitz eta sendabelarrei buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte.

G. Zein da Udalean egiten ari zareten lana?

Maitane. Herrian dauden zuhaitz eta zuhaixken zerrendak egiten ari gara. Zein mota dagoen eta mota bakoitzeko zenbat, herriko kale eta lau parkeetan. Inbentarioa azken batean. Horrez gain, parkeetako zuhaitzei, behin zerrendatuta, identifikazio plakak jarriko dizkiegu.

Bestalde, Udalak 200 hektarea inguru lur ditu, eta sail horiek aztertu eta bertan egin daitekeenaren inguruko proposamenak prestatzen ari gara. Esaterako, pinudi zaharrak dauden lurretan, pinu horiek bota, eta bertako zuhaitzak sartzeko proposamena, edo mugarriak falta diren tokietan jartzekoa.

G. Zenbat zuhaitz mota dago herrian?

Nere. Zuhaitz asko dago. Hala ere, asko eta asko errepikatu egiten dira, kalean batez ere. Parkeetan aniztasun handiagoa dago, zuhaitz mota gehiago dago parkeetan. Bestalde, Bergaran dauden zuhaitz gehienak kanpotik ekarritakoak dira, bertako zuhaitz gutxi dago, pago eta haritz batzuk badaude, baina esan bezala, gehienak kanpotik ekarritakoak dira.

Goiko kontearen parkea eta Santa Ana aberatsak dira, baina gainontzean Bergara ez da oso aberatsa, ez

MAITANE ARIZABALETA eta NERE GOÑI Murgiaiko Nekazari Eskolako ikasleak

“Bergaran dauden zuhaitz mota gehienak ez dira bertakoak”



Maitane eta Nere lanari azken ikutuak ematen ari dira Udalean aurkezteko.

zuhaitzetan, ez zuhaixketan eta ezta loretan ere. Oso errepikakorrek dira guztiak.

G. Nabarmenduko zenuketere motaren bat?

Maitane. Aligustre asko dago, platano arrunta, ezkia eta indi gaztaina ere asko dago. Bereziaren artean, gingo biloba aipatu daiteke. Zuhaitz hau, bonba atomikoaren ondorioetatik iraun

“Oso gauza berezia dago zuhaitzekin lotuta, pagoarekin batik bat: siniskeria, hain zuzen. Bada, pagobedeinkatua deitutako pagoa”

duen zuhaitz bakarra da. Oso zuhaitz zaharra da, eta Usondo eta Errekalde parkeetan dago. Beste zuhaitz berezi bat kriptomedia da. Hauek Usondon daude. Kanpokoak dira eta izugarri handiak egin daitezke. Dena den, guztien artean zedroa aipatuko nuke. Usondon zedro zoragarria dago.

Bestalde, oso gauza berezia dago zuhaitzekin lotuta, pagoarekin batik bat: siniskeria, hain zuzen. Bergaran bazen lehenago pago bat, mendialdean, eta bertara errezura joaten omen zen jendea. Gaur egun Pagobedeinkatua bezala ezagutzen dena oraindik.

G. Zainduta daude?

Maitane. Errezenera jo da. Mantenimendu gutxi duten espezieak dira. Horrez gain, herriko gune batzuetan, Poligonoko pasealekuan esaterako, dentsitate handia koncentratzen da. Bertan, tilo asko dago, eta bata besteari hazkundera oztotzen dio.

G. Herriko zuhaitz, zuhaixka eta lorak ezagutzeko irteera bat ere egin duzue Jardunek antolatuta.

Maitane. Joan zen eguaztenean egin genuen. Batetik, Errekalde eta Usondoko parkeetara hurbildu, eta bertan, zuhaitz, lora eta landarak ezagutzeko aukera izan genuen ikastaroan izena emandakoekin batera. Bestalde, espezie bakoitzaren inguruan hainbat datu ere eman genituen.

G. Sendabelarren inguruan hitzaldi bat ere eman duzue ekainaren leian.

Nere. Bai. Bertan, sendabelarrak nola erabili, zein material erabiltzen den eta sendabelar bakoitza zertarako erabiltzen den aztertuko dugu. Hemen inguruan aurki daitezkeen sendabelarren inguruan jardungo dugu, hamabosten bat.

Tavex talderako ehungintza plan orokorra eskatu dute sindikatuek

Zuzendaritzaren planak Bergarako ehungintza desagertarazi egingo duela uste dute

Tavex taldeko sindikatuek ez dute zuzendaritzak aurkeztutako plana onartuko, martitzenean Donostian prentsurrean jakitera eman zuteenez. Sindikatuen ustez, zuzendaritzaren planak, Bergarako ehungintza desagertarazi egingo du, eta haren ordez plan orokor bat aurkeztu dute.

Hori da, martitzenean Donostian, ELA sindikatua-ren egoitzan egindako prentsurrekoan Tavexeko langileen ordezkariak azaldu zutena.

Sindikatuek oso argi azaldu zuten Tavex taldeko zuzendaritzak aurkeztutako sustapen planaren aurka daudela. Hiru arrazoi nagusi eman zituzten: batetik, Gabiriako lantegia berehala ixtea dakarrela; bestetik, epe laburrean Elorregiko planta ixtea ere ekarriko duela, eta azkenik, orohar Bergarako ehungintza desagertzeko bidean jarriko duela zuzendaritzak aurkeztutako plan horrek.

Honekin guztiarekin, ELA, LAB, CCOO, UGT eta Ezker Sindikaleko ordezkariak



Tavex-eko ordezkari sindikalak Donostian emandako prentsurrekoan.

riek ehungintza bultzatzeko proposamen bat luzatu zuten ELAk Donostian duen egoitzan.

PLAN GLOBALA

Proposamen horren arabera, Bergaran ehungintza mantentzeko biderik egokiena, arlo honetan diharduten enpresa guztiak kontuan hartuko dituen plan bat egitea da, plan globala, azken batean.

Honela, batez ere Tavex eta Narvaiza enpresek, daukaten makinaria batuz, produktioa handituko lukete, eta irabazi handiagoak lortu.

Plan orokor honekin aurrera egiteko, ELA, LAB, CCOO, UGT eta Ezker Sindikalak bat egin dute. Bestalde, Bergarako alkate Victoriano Gallastegirekin ere izan dira sindikatuetakordezkariak: Gabiriako lurrak ez birkalifikatzea adostu du-

te, sindikatuak eta enpresako zuzendaritza adostasun batera heldu arte. Izan ere, zuzendaritzak, Gabiriako enpresa dagoen lurrak saldu nahi dizkio Udalarari.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzarekin ere harremanetan ari dira langileen ordezkariak, eta Jaurlaritzan Euskadiko Ehungintza Plana begi onez ikusten dutela gaineratu zuten prentsurrean.

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

Bi metroko hesia jarriko da Pazkuetan Bideberrin

Aurreko urteetan izan diren istripuak kontuan izanda, txoznetako gunean segurtasun neurriak hartuko ditu Udalak. Neurri hauen arabera, bi metrotik gorako xafla antzeko hesia jarriko da erreka aldera ematen duen harrizko hormatxoaren aurrean. Lurrera eta aipatutako harrizko hormara egongo da lotuta, eta guztiz laua izango da, kokarik gabea, inor igo ez dadin.

Luzerari dagokionez, Txurreria deritzon kioskotik hasi eta Bideberriko espaloia amaitzen den tokira arte luzatuko da, ia Infernukua tabernaraino.

Txoznak Bideberritik kendu eta Seminarioan jartzeko aukera ere aztertzen ari dira Udalean. Hala eta guztiz ere, aparkaleku eska-



lazko Pazkuetan, Raul Luque ibaira erori zen eta larriki zauritu.

ARTXIBOA

siak eraginda, baztertuta gelditu da aukera hau, Seminarioa jaietan aparkaleku gisa erabiltzeko.

ARAZOEKIN AMAITU

Txoznetako segurtasun neurrien faltak sortutako

arazoekin amaitzeko, udaleko hirigintza saila behin betiko segurtasun neurriak jartzeko proiektua lantzen ari da. Hori horrela izanik, orain dagoen harrizko hesia bota eta haren ordez zerbait seguruagoa jarriko da.



Manifestazio jendetsua

Jende ugari bildu zen domekan Debagoieneko Euskal presoak Euskal Herrira plataformak eta Gazte Ekimekin antolatutako manifestaziora. Euskal preso politikoaren eskubideak, legeak dioten bezala, errespetatuak izan daitezela eskatu zuten manifestaziora hurbildutakoek. Manifestazioari ELA, LAB, ESK, STE-EILAS eta EHNE lotu zitzaizkion. Amaieran, Maite Aristegik sindikatuen izenean presoaren aldeko manifestua irakurri zuen.

Presoen aldeko mobilizazioak egin dira aste osoan

Euskal preso politikoaren kolektiboak deitutako greba deialdiari erantzunez, aste osoan zehar hainbat mobilizazio egin dira herrian. Helburua, presoaren eskubideen aldeko konpromisoa berrestea izan da, eskubide horiek errespetatuak izan daitezen lortzeko, urrats berri bat egitea hain zuzen.

Astelehenean, enkar telada egin zen plazan ohi den bezala. Martitzenean ikasleek greba egin zuten. Eguaztenean, greba instituzionala egin zen. EH taldeko zinegotziek deialdiari erantzunez, egun osoko greba egin zuten, eta gauzatze aldera, egun osoa udaletxean eman zuten, bertan behera utziz zereginak, Euskara Batzordea kasu. EHko zinegotzien esanetan, Udaleko gainontzeko zinegotziei greba proposamena luzatu arren, erantzun kaskarra izan zen. Auzoalkateen kasuan, bost lotu zitzaizkion grebari. Eguenean, greba komertzio eta industrian egin zen, eta manifestazioa eguerdian. Azkenik, gaur, eguakitzan, manifestazioa egingo da, 20:00etan plazan.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Esparzak zinegotzi izateari utzi dio jasotako mehatxuengatik

Alvaro Esparzak, PSE-EEko zinegotziak, dimisioa aurkeztu zuen udalean martitzen eguerdian. Zinegotzi izateari uzteko arrazoia, "azken hilabeteetan ETaren ingurutik jasotako heriotza mehatxuak" izan dira, Esparzaren esanetan.

Zinegotzi ohiaren arabera, bere aurkako lehenengo pintadak iaz azaldu ziren, abenduaren 24an, eta ordutik, "martxoaren 18an eta maiatzaren 16an mehatxu gehiago jaso ditut. Guztiak heriotza mehatxuak, *te vamos a matar* eta *tienes los días contados* bezalako testuekin".

Gauzak honela, dimisioaren berri, martitzen arratsaldean eman zuen Herriko



Esparzak martitzenean Casa del Pueblon aurkeztu zuen dimisioa. DV

Etxean prentsaurrean. Gasteizeko hamar parlamentario sozialista ere izan ziren.

Oraindik erabakirik hartu ez den arren, baliteke Javier Zendoia bere ordezkoa

izatea, zerrendako bigarrena den heinean.

Bestalde, Esparzak eskertu egin du EAJ eta EA alderdiek berarekin izan duten jarrera.

Nagusiak egoitzetan hartzeko programa

Martxan jarri du aurten ere Udalak pertsona nagusiek egoitzetan denboraldi bat pasatzeko aukera ematen duen programa. Helburuetako bat, pertsona nagusiak euren kargura dituzten familiei laguntzea da. Denboraldi batez, egoitza batean sartu eta eurekin bizi diren senideei atsedena ematen zaie.

Kontuan izanda uztailean eta abuztuan programa honen eskakera asko gehitzen direla, komenigarria ikusten du Udalak interesatuta dauden pertsonak maiatzaren bukaera baino lehen izena ematea Udaleko Ongizate Zerbitzuan.

Torrekua pareko barianteko sarrera itxi egingo da astelehenean

Itxi egingo da datorren astelehenean aurrera Arri-zuri kalea ibilgailuendako. Ibargarai kalea ere itxita egonda, ezingo da Torrekua pareko barianteko zubitik herri barrura sartu. Beraz, barianteko zubitik sartu nahiez gero, San Antonio-rantz hartu eta Espoloirantz jo beharko da, edo barianteko Poligonoko sarreratik.

Pesako autobusei dago-kienez, Torrekuan bertan hartuko dute buelta, Banco Vitalicio parean. Hori horrela, bidaiariek Torrekuako arkupeetan egon beharko dute zain.

Bestalde, oinezkoendako itxita egongo dira Ibargarai kalera ematen duten Ikerleku eta Ostetako kantoioak hamabost egunez.



Gutxienez, hiru astetan egongo da itxita barianteko sarrera.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Berrigara

411 zenbakia.
2000ko maiatzaren 26a.

Irizar jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzatza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unni Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikote, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Veronique Vial

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETA

Ez dakit zer gertatzen den herri honetan baina badirudi gero eta pilotazale gutxiago dagoela. Azken asteotan maila bikaineko pilota txapelketa izan dugu herriari, Bergara Hiria pilota txapelketa hain zuzen ere. Lehen mailako eta promesaren kategorian partidu benetan ikusgarriak egon dira Bergarako Udal Pilotalekuan, martitzenero, eta jendearen erantzuna nahiko eskasa izan dela iruditzen zait, txapelketaren eta pilotarien maila kontuan izanik. Harmaitan jende gutxi izan da (persona edade-tuak gehienak eta gazte gutxi, tamalez) eta penagarria da gazteen mailako partiduetan frontoia ia hutsik ikustea. Pilotazale guztiok pilota bultzatzeko ahaleginak egin behar direla esaten dugu behin eta berriz, eta profesional mailan pilotarien egoera hobetzeko lan aipagarria egin da azken urteotan. Baina, azpiko kate-

gorietan, zer? Gazteek ere, laguntza beharrezkoa dute, eta hori lehenbizi zaletuengandik etorri behar dela us-te dut, pilotak jarraitzaile ugari duela ikus dezaten.

Baina, zoritxarrez, Bergara Hiria txapelketan ez da hori gertatu eta aste honetan jokatu diren finalerdietan zaleek ez dute behar bezala erantzun. Herriko pilotariak tartean izanik, egoera larriagoa da oraindik, ziur bainago eurek ere eskertuko luketela zalegoaren laguntza. Partidu politikak ikusi ditugu eta zorionak eman nahi dizkiet parte hartu duten pilotari guztiei eta txapelketako antolatzaileei. Bergararrok harro egon beharko ginatke horrelako txapelketa bat edukitzeaz, baina komunikabide zein herritarren aldetik txapelketa horrek merezi duen jarraipena izatea eskatuko nuke.

Ea datorren ostiraleko finaletan jendea partiduak ikustera joaten den eta guttion artean Bergara Hiria

txapelketari eusten diogun. Zorionak berriz ere antolatzailaiei eta txapelketa hau posible egiten duten guztiei.

A. Gartzia

EUSKAL PRESOEKIN BAT

BERRIGARAKO erredakzioak bi orduko paroa egin zuen atzo, eguena, euskal presoen aldeko grebarekin eta mobilizazioarekin bat eginez.

BERRIGARA

tira biraka bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Pazkuetako zezenketak kentzeko eskatu dotsa talde batek Udalari. Zer iritzi daukazu gai honen inguruan?



Alonso Sanchez

Ondo ikusiko neuke zezenketak kentzian, animalixek asko sufritzen dabela pentsatzen jat eta.



Jose Maria Diaz

Ni zezenketen aurka nago. Animalia gaixuek ez dauke zergaitik horrela sufritu; hil bihar badittue, eruan deixela mataderixara eta kitto.



Teresa Rubio

Ez naiz zezenketen ez zalia, ezta kontrakua be. Neri egixa esan ez jat inporta zezenketak egotia ala ez egotia.



Juan Octavio Garcia

Erabat ados nago talde horrekin; ni be zezenketak kentzian aldekoa naiz, eta inguruko herrixetan be kentzen badittue, hobeto.



Aintzane Rodriguez

Ez dotenez parte hartzen, egixa esan, ez jat gehixegi inporta zezenketak egin ala ez egin.



Rosa Quintana

Neuri ez jat gustatzen, sufritu egitten dot eta; baiña pentsatzen jat gaztiek ondo pasatzeko era bat dala, eta ez liekela kendu bihar.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

TXOTXONGILOEN NAZIOARTEKO MOSTRA

J. Perezek zorionak eman nahi dizkio Taun-Taun taldeari, bi urtetik behin horren kalitate oneko txotxongiloen nazioarteko mostra antolatzeagatik. Bergara moduko herri batek horrelako jaialdi bat izatea benetan luxu bat dela dio Perezek. Aurten ere ikuskizun bikainak ikusteko aukera izan dugu bere iritzi, eta ikusleek ere ondo erantzun dute. Hala ere, keaxto bat ere badauka J. Perezek jaialdiaren inguruan: bere ustetan ondo dago ikuskizun guztietarako bonoak saltzea baina beharbada gehiegitxo iruditzen zaio Novedades aretoan ziren emanaldiak ikusteagatik 1.000 pezeta ordaintzea, kontuan izanda gehienak iraupen gutxiko ikuskizunak zirela.

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Irala 3
Telefona: 943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 943 76 27 93



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
Pintura industrialak
Zoru arinak: sintasolak, moketak...



Bosogintzan aintzindari.

adituen esanetan

Zelulitisa

Zelulitisa nagusiki emakumeek jasaten duten gaitza da. Adinari dagokionez, 22 urtetik gorako emakumeetan ager daiteke, baina batik bat menopausia agertzen denean okerrera egiten du. Adinean aurrera joan ahala trastorno hau ohikoagoa da. Bestalde, emakume lodietan argaletan baino gehiago ematen bada ere, argalek ere badute zelulitisa sufritzeko arriskua. Azalaren azpian dagoen ehun adiposoaren alterazioa litzateke zelulitisa. Batez ere likidoen erretentzioa, zirkulazio eskasa, hormonetako desorekak eta ariketa fisiko falta dira zelulitisa agertzeko arrazoi nagusiak. Normalean, iztarretan, belaunen gainean, besotetan, ipurdi aldean eta "kartutxeretan" agertzen dira horren ondorioak. Alde batetik, ehun adiposoaren infekzioagatik eman daiteke eta, bestetik, ehun adiposoa handitzeagatik. Bigarren arrazoi hau askoz ere arruntagoa da.

Azpimarratzekoa da zelulitisa ez dela larria izaten, baina, estetikoki duen konnotazioagatik, buruhauste bat baino gehiago ematen diela arazoa izaten dutenei. Zelulitisa zuzentzeko metodoak egon badaude, baina, guztiz desagertzea oso zaila izaten da, azken batean, azalaren dejenerazio moduko bat delako. Behin agertuz gero, kentzea asko kostatzen da. Dena den, kanpoko tratamenduak daude bate-



PILI GISASOLA

Izadi dendakoa

"Adinean aurrera joan ahala zelulitisa ohikoagoa da, eta menopausia garaian okerrera egiten du. Gehienbat, arazo estetikoak da"



Iztarretan eta belaunen gainean ere agertzen da zelulitisa. ARTXIBOA

tik (gaur egun, oso krema eta gel egokiak daude merkatuan), eta, bestetik, barruko tratamenduari dagokionez, algak eta beste konpuesto batzuk gomendatzen dira, eta elikadura orekatu bat izatea ere oso inportantea da.

Elikadurari dagokionez, fibra gehiago jatea, elikagai diuretikoak (kipula, apioa, alkatxofak edo esparragoak), hainbat fruta (mahatsa, madaria eta meloia batez ere) eta A bitamina duten elikagaiak (azanarioa eta kolore horiko zein laranjako frutak orokorrean) edo soja, beti ere, ondo etorriko zaizkigu zelulitisaren ondorioak "leuntzeko" orduan. Era berean, grasak (okela, gurina, esnegaina), ahal den neurrian saihestea komeni da, ez baitira batera komenigarriak zelulitisa dutezentzat.

bergarako errotrak



SANTA ANA-BOLU

Santa Ana-bolu: "1661-ean, Martin de Murua Elorreguik Diego de Aroztegui Marañoñi Errota-Alden, hau da, errota ondoan, zegoen Aroztegiko dorrea eta orubea erosi zizkion".

1890eko errolda ofizialaren arabera, Jose Manuel Barrutia Irigoien bizi da Santa Anan. 33 urte ditu, eta nekazaria da. Badaki idazten eta irakurtzen.

1905eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak dioenez, Del Valleko kondea da Santa Anako erroteren jabea.

Santa Anako errota desagertu egin zen, eta errota kokatuta zegoen baserriko bizilagunek adierazi zigutenez (81/01/07), duela 400 urtetik gora laga zion errota izateari. Gu egon eta sei hilabetera, bota egin zuten Santa Ana Bolu baserria, eta frontoia egin zuten bertan.

Arane errekaen eskumaldean zegoenez, bertako ura erabiltzen zuen.

KOKAPENA: Arana (Arane?) auzoan zegoen, Santa Ana ermitaren atzean.

Santa Anako errota desagertu egin zen, eta errota kokatuta zegoen baserriko bizilagunek adierazi zigutenez, duela 400 urtetik gora laga zion errota izateari

Antxon Agirre Sorondo



Aranzadiko bigarren mailakoak Berrigararen bisitan

Aranzadi ikastolako **bigarren mailako hiru talde** BERRIGARAN izan dira bisitan: plazako bi talde eta Poligonoko bat. Neska-mutikoak "Komunikazioa" gaia ari dira lantzen ikastolan, garraioak eta komunikabideak batez ere. Honela, aldizkariak irakurlearen eskuetara heldu arte jarraitzen duen prozesua ikusi nahian BERRIGARARA hurbildu ziren joan zen eguakitzean.

87 urteko herritarrei omenaldia

San Joxepeko jaialdia antolatu ziren joan zen domekan **87 urte** bete dituzten herritarrei. Hogeitik gora lagun elkartu ziren, eta Santa Marinaran meza entzun ostean, euren familiako kideekin batera, Jubilatuetara joan ziren eta luntx goxo bat izan zuten. **Musika eta opariak** ere izan ziren jaia alaitzeko.



Txotxongiloei agur

Beti bezala, jende ugari hurbildu da **Taun Taun** taldeak bi urtean behin antolatzen duen txotxongilo mostrara. Nazioarteko hamabi taldek hartu dute parte bertan, eta txotxongiloak umeendako izateaz gain, nagusiagoendako ere ikuskizun aproposa direla argi utzi dute. Joan zen eguenean hasi eta domekara bitartean, **Argentina, Italia, Flandes, India** eta estatuko hainbat herri-tako taldeek norbere ikuskizuna eskaini dute. Bosgarren mostra amaituta, bi urte barru txotxongiloak izango ditugu berriz herrian Helduendako Txotxongiloen Nazioarteko VI. Mostrarekin batera. Ordura arte!

Hiztegi Batuaren lehen zatia amaituta

Euskaltzaindiak 20.000 hitz batu ditu bertan

Nola idatzi behar dugu, injinerutza ala ingeniarietza, ihardunaldiak ala jardunaldiak, yogour ala jogurt? Euskara irakasleak, itzultzaileak, idazleak, kazetariok eta orokorrean euskaraz lan egiten dugun guztiok horrela ibili izan gara, hitz zuzenarekin ezin asmatu. Arazoa aspaldikoa zen. Axularrek berak argi adierazi zuen 1643an: "Eztituzte euskaldun guztiak legeak eta azturak (ohiturak) bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent". Zorionez, era horretako zalantza asko, testu ez espezializatuei dagozkien gehienak, konpondu egin dira Euskaltzaindiak Hiztegi Batua onartzearekin batera. Orain badakigu "ingeniarietza", "jardunaldiak" eta "jogurt" idaztea zuzenagoa dela.

Joxe Aranzabal

Lehen hiztegi batua 1968an sortu zen. Orduan *Batasunaren Kultura* deitu zitzaion. Euskaltzaindiak 2.000 hitz onartu zituen, euskara batuaren corpusa sortzeko. Urte luzeetan, baina, hitz multzo horiekin konpondu ginen. Arazo askorekin, oso hitz multzo murrizta zelako. Horregatik, 90. hamarkadan sartu ginenean, euskaltzaleak inoiz baino indar handiagoa egiten ari ziren Euskaltzaindiak hiztegi batu moduko bat atera zezan.

Azkenean, 1991n, Hiztegi Batuaren batzordea sortu zen, zalantza zeuden hitz asko nola idatzi erabakitzeko eta erakusteko. Ordurako Euskaltzaindiak abiatuak zituen munta handiko lanak, hiztegiaren lana izugarri errazten zutenak: Gramatika batzordea, Orotariko Euskal Hiztegia, Hauta Lanerako Euskal Hiztegia, Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistemakoa, etab.

LAN PROZEDURA

Hiztegi Batuaren batzordea 1992an hasi zen lanean. Dozena bat lagunek osatzen zuten. Hasieran astiro, baina denborak aurrera joan ahala geroz eta agudoago, batzordeak ordu mordo sartu zituen lantegi honetan.

Batzordekideek letra bakoitzari zegozkion zerrendak osatzen zituzten.

HOBESTEN DIRA

Euskaltzaindiaren ustez, batasunerako hobe da eskuineko formak erabiltzea, txukunagoak eta tradizio hobekoak direlako. Ezkerrekoak lagun artean, inguru jakin batean edo formak ez diren egoeretan erabiltzeko izan daitezke.

ONDO

Boligrafo

Enparantza

Gaztelera

Gurutzegrama

Ikertlari

Injineru

Irla

Karrera

Kipula

Moneta

Negutegi

Partidu

Pelikula

Prehistoria

Tailer

HOBETO

Bolaluma

Plaza

Gaztelania

Hitz gurutzatuak

Ikertzaile

Ingeniari

Uharte

Ikasketak

Tipula

Diru, txanpon

Berotegi

Partida / Alderdi

Film

Historiaurre

Lantegi

Ondoren, 90 bat iritzi emaileri bidaltzen zitzaizkien (tartean idazleak, irakasleak eta itzultzaileak, besteak beste), haien iradokizunak jasotzeko. Oharra hartu ostean, aztertu eta behin behineko zerrendak egiten ziren, Euskara Batuko batzordeari pasatzeko. Azken proposamena Euskaltzaindiaren osoko bilerara eramaten zen, euskaltzain osoek erabaki zezaten.

Guztira 20.000 hitz onartu dituzte. Hauetako askotan, gehienetan, ez da arazorik izan eta aho batez onartu dira. Adostasunik izan ez denean, berriz, bozketa egin izan da. Horixe izan da, beste askoren artean, "zerri/txerri" edo "ihardun/jardun" hitzen kasua.

Zortzi urteko lana izan da, nahiz eta lehen zerrenda kaleratu zenetik bost urte igaro.

LASTER ARGITARATZEKO

1994an azken aldiko lehen erabakiak kaleratzen hasi eta berehala, Euskaltzaindiak koaderno berezi batzuk sortu zituen, hartzien zihoan erabakiak eta arauak argitaratzeko.

Orain ere, prestatzen ari da, BBVA bankuarekin batera, liburu bat, Hiztegi Batua jasoko duena eta, honekin batera, exonomastikaren inguruko erabakiak eta, oro har, 1994tik hona kaleratu



EUSKALTZAINDIKO AZKUE BIBLIOTEKAK UTZIRIKO IRUDIA

Jose Mari Satrustegi, Koldo Mitxelena, Villasante eta Jose Luis Elkoro, Bergaran egin zen VIII. Biltzarraren aurkezpen ekitaldian, 1978ko irailaren 4an.

VOYEUR

Sabino Aranak c, v, w eta y guztiak ezabatu egin zituen euskal hiztegitik. Denak k, b edo i bihurtu zituen. Eskolan ere denok ikasi genuen euskaraz ez dagoela c, v edo uve bikoitzik. Horren ondorioz edo, edozein sailkapen egiteko, A, B, D, eta E mailatan egin ohi dugu. Euskarak, ordea, aurrerabide handia egin du Sabino Aranaren garaitik eta Euskaltzaindiak c, v, w eta y hiztegi batuan sartzeko erabakia hartu du. Beraz, orain badakigu campus, vedette, whisky edo voyeur euskal hitzak direla. Eta bitxikeria bat. Nola deitzen dio Euskaltzaindiak "ç" letrari? "Ze hautsia". Horra.

C letran sei hitz baino ez dira agertzen: camping, campus, cm eta cl zentimetro eta zentilitroen sinbolo nazioartekoa, corpus eta couche paper.

V letran hogeita bi berba azaltzen zaizkigu, vedette, versus, vodka eta voyeu...

W letra ez da oso oparua: hamalau hitz datoz, gehienak ingeles jatorrikoak; tartean walkie-talkie, walkman, western eta whisky.

Y letran hamar hitz baino ez datoz. Besteak beste, yanki, yen, yoga edo yuppie.

dituen arau guztiak. Orain azken zuzenketak egin ari dira, lehenbailehen kalera dadin. BBVAk argitaratuko du, bera izan da eta, Hiztegi Batuko lan guztiak ordaindu dituena.

Liburu hau, ateratzen denean, euskararen inguruko profesionalen eta euskaltzale askoren biblia bihurtuko da datozen urteetarako. Bitartean, horren premia duenak Euskal Herriko Unibertsitateak iaz argitaratu zuen *Euskaltzaindiaren Araugintza Berria: Ikastaroa* izeneko liburura jo dezake.

E* ETA H.

Hiztegi osoan zehar bi letra hauek (e. eta h.) agertzen dira sarri. Zer esan nahi dute? e.=erabil; h.=hobe (forma hobetsia ondokoa dela, alegia).

Esate baterako, bi hitz hauek honela agertuko dira: "yogour* e. jogurt". Kasu honetan, Euskaltzaindiak ez du onartzen asteriskoa daraman hitza. Beltzez doana, berriz, bai.

Berba asko agertzen dira horrela. Guk adierazgarrienak aukeratu ditugu eta erreportaje honen azken orrialdean agertzen dira, ez-bai eran aurkezturik, irakurleak jakin dezan.

Bada beste hitz multzo bat, hobetsiena. Kasu honetan hitz biak negritaz idatzita datoz. Adibide bat: "Boligrafo

BATUA ERAIKITZEN

Inguruko hizkuntzek —gaztelaniak eta frantsesak, adibidez— bost mende behar izan dituzte batasunera iristeko. Euskarak, berriz, hogeita hamabi urte daramatza zeregin horretan.

1968 Arantzazu. Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak zirela eta, hantxe moldatu zen batasunaren lehen arau multzoa.

1987 Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukia.

1994 Leioa. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Batasunaren inguruko arau gehiago kaleratuko dira.

1995 Hiztegi Batuaren lehen atala.

1998 Donostia. Euskara Batuaren Ahoskera Zainduaren gaineko lehen erabakiak.

2000 Bilbo. Hiztegi Batuaren azken hitzak onartu ziren.

1978an Bergaran

78ko irailean Bergarako UNEDeko egoitzan egin zuen bere VIII. Biltzarra Euskaltzaindiak. Astebete iraun zuen Kongresu honek, eta "euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aintzintzea" zuen helburu nagusi. Garai hartan Bergarako alkate zen Jose Luis Elkoro gogoratzen duen bezala, bertan izan ziren, besteak beste, garai hartan euskaltzain ziren Villasante, Mitxelena, Juan San Martin eta Satrustegi.

(gaztelaniaz bakarrik esaten da) h. bolaluma". Euskaltzaindiaren ustez, batasunerako hobe da eskuineko forma erabiltzea, txukunagoa eta tradizio hobekoa delako. Ezkerrekoa lagun artean, inguru jakin batean edo formalak ez diren egoeretan erabiltzeko izan daiteke. "Kasu honetan –dio Miren Azkarrate euskaltzainak– Euskaltzaindiak proposamen egiten du, ea jendeak onartzen duen". Adibide gehiago goiko taulan ikus dezakezue.

BATUA ETA EUSKALKIAK

"Euskalkiek toki bete-betea dute Hiztegi Batuan –segitzen du Miren Azkarratek–. Hitz mordoak dago euskalkietatik

hartutakoa. Horietako asko eta asko bakarrik Bizkaian erabili izan dira, baina Euskaltzaindiak ontzat hartu ditu Hiztegi Baturako". Hortxe daude, besteak beste, *abade, apartatu, atzamar, begirakune, bolu, dindirri, domeka, edozelan, eguazten, egubakoitz, eguen, ei, elai, erdu, eskuma, eskutur, eztegu, garbaitu, begaz, ilunkera, ira, iretargi, iruntz, itzarrik, jakituria, jesarri...*

Hauek guztiak euskara batuko hitzak dira, gehienak Bizkaieraren eremuan lasai asko erabil daitezkeenak.

JARRAIPENA

Gaur egun, bada, 20.000 hitzek osatzen dute Hiztegi Batua. Hala ere, lanak ez


dira hor amaitu. Euskaltzaindiak dagoeneko ekin dio Hiztegi Batuaren bigarren aldiari. Batzordea F letrarinari iritsi da, lehen proposamenean.

Bigarren aldi honetan, ordea, beste era bateko berbak sartuko dira. Tradizioak ez du hainbeste pisurik izango. Beraz, azken urteotan sortu diren hitz berri asko aztertuko dira. Dena ondo badoa, beste 20.000 hitz inguru proposatuko dira. 2005. urterako bukatuta egon liteke.


Axular mirestuta egongo litzateke gaur egun. Izan ere, beste ezerk baino gehiago, erresuma diferentean gaitetik euskara batuak egiten gaitu herri.<



Iñaki Ugarteburu
Itzultzailea



Mikel Lizarralde
Kazetaria



Juan Martin Elexpuru
Idazlea



Estepan Plazaola
Udaleko euskara teknikaria

Hiztegi Batua amaituta dago: kito. Hasieran gaude, ordea: hiztegiak oinarriak jarri ditu, eta euskara estandarren filosofia orokorra (hitzak erabakitzeke irizpide nagusiak). Orain, tresna horrek hazi beharra dauka. Eta bide hori ez da orain artekoa baino errazagoa izango. Gainera, hiztegiari neurria hartzen ikasi beharko dugu orain itzultzaile eta idazleok. Hau da, literaturan (sormena agintari) edo espezialitateko hizkeretan (arlotxo estandarizazioa nagusi), hiztegi hori baino urrunago noiz joan behar dugun asmatu beharko dugu. Baina patxada ederra hartu dugu oinarriko kontuokin burua nekatzen ez ibiltzeko.

Komunikabideetan lanean gabiltzano ez dakit zenbateraino onura ekarriko digun Hiztegi Batuak, baina lexikotasunean finkatu barik zeuden hainbat gauza behintzat finkatu dituzte, pautak batzuk markatu dituzte, eta iruditzen zait horrek asko lagunduko digula kazetariok. Izan ere, euskal komunikabideok beti ibili izan gara, bakoitza bere aldetik, geure erabakiak hartzen. Hala ere, lehen zati hau egiterako orduan tradizioan oinarritu dira batik bat, eta ikusi egin behar bigarren zatia, hitz berriak aztertzen dituen, nola eta noizko egiten duten. Bestalde, euskalkietako hitzak kontutan hartu dituzte, eta hori oso positiboa iruditzen zait; nahiz eta euskara batuan idatzi, bakoitzak bere lekua mantendu behar baitu.

Euskaltzaindiak euskara batuko hiztegia amaitu duela esan didate. Pozik egotekoa da. Dena dela, lehenengo zerrenda bat amaitu duela esatea hobe, hiztegi bat ez da eta sekula amaitzen. Orain badakigu arotz "h" barik dela, bat-batean idatzi behar dela, edo armairu dela korrektoa eta ez armairo. Eta beste gauza asko. Baina hiztegi hau, denak bezala, kontuz ibili behar da. Jakin behar da hemen agertzen ez den berba asko dagoela. Eta euskal lexiko guztia dela berez, batua. Kukurruku-etzula batua dela, nahiz eta zerrendan ez agertu. Bergaran esaten den edozein berba edo esapide izan daitekeela batua, kontrazio barik idazten bada, behintzat.

Hogeita mila hitzeko hiztegi batua eskaini digu Euskaltzaindiak, zenbait urteko lanaren ondoren. Eguneroko jardunean euskaraz dihardugunontzako laguntza handia izango da, zalantza asko argituko dizkigulako, eta jaso gabeko hitzetarako ere ildo bat markatzen duelako. Hiztegiak datoz, adibidez, berbil edo urrutizkin hitzak eta baita seduzitu edo seminario ere. Garai batean batzuentzat lehenengo biak izango ziren onartezinak eta beste batzuentzat azkenekoak. Orain, apurka-apurka horko formez jabetzea falta zaigu eta horretarako bada tresna egoki bat: Xuxen zuzentzaile ortografikoa. Hiztegia eta zuzentzailea biak ere kontuz erabiltzekoak, baina biak gomendagarriak, nire ustez.

HIZTEGI BATUA

Hona hemen Hiztegi Batuan agertu diren aldaketarik nabarmenenetako zenbait. Irakasleek, kazetariak eta, oro har, euskaltzale guztiak gogoan hartu beharrekoak. Lehen modu batean esaten ziren berba horiek, askotan Euskaltzaindiak berak hala gomendaturik, baina orain beste era batera erabili beharko dira.

EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI
• Adjetibo	Adjektibo	• Kamara	1 Kamera,	• Polbora	Bolbora, sutauts
• Anbulategi	Anbulatorio		2 Ganbera	• Poxpolu	Pospolo
• Arraultza	Arrautza	• Kamarero	Zerbitzari	• Prejitu	Frijitu
• Bibolin	Biolin	• Kanpaina		• Razional	Arrazional
• Erabakiorra	Erabakigarria	denda	Kanpadenda	• Record	Errekor
• Amankomun	Komun	• Kapirio	Gapirio	• Reket	Errekete
• Artileria	Artilleria	• Karamelo	Karamelu	• Rifle	Errifle
• Aurrekalde	Aurrealde	• Kardenal	Kardinal	• Rito	Errito
• Bildur	Beldur	• Keramika	Zeramika	• Rugby	Errugbi
• Biper	Piper	• Kitarra	Gitarra	• Ruleta	Erruleta
• Bolondres	Boluntario	• Koartel	Kuartel	• Sabotaia	Sabotaje
• Derrigorrez	Derrigorrean	• Komisaldegi	Polizia etxe	• Sailordetza	Sailburuordetza
• Deskafeinatu	Kafeinagabe	• Konfidantza	Konfiantza	• Sapai	Sabai
• Diti	Titi	• Konpromezu	Konpromiso	• Scanner	Eskaner
• Edifizio	Eraikin	• Korbata	Gorbata	• Scout	Eskaut
• Ejerzito	Armada,	• Kotxe	Auto(mobil),	• Seda	Zeta
	gudaroste		beribil	• Seirehun	Seiehun
• Entrepresa	Enpresa	• Laberinto	Labirinto	• Seksu	Sexu
• Entzulego	Entzuleria,	• Langilego	Langileria,	• Sekulan	Sekula
	entzuleak		langileak	• Senadore	Senatari
• Erazi	Arazi	• Lebatz	Legatz	• Serraila	Sarraila
• Eritzi	Iritzi	• Liburudenda	Liburu denda	• Sofritu	Sufritu
• Este	Heste	• Liseriketa	Digestio	• Solidaritza	Solidaritate
• Examina	Etsamina	• Magisteritza	Irakasle	• Somatu	Sumatu
• Exemplo	Etsenplu		ikasketak	• Sonda	Zunda
• Fraile	Fraide	• Mahainguru	Mahai inguru	• Spaghetti	Espageti
• Fraka	Praka	• Makailao	Bakailao	• Sprint	Esprint
• Futbolin	Mahai futbola	• Makilaia	Makillaje	• Standard	Estandar
• Gasoil	Gasolio	• Masaia	Masaje	• Stress	Estres
• Goilare	Koilara	• Ministeritza	Ministerio	• Suin	Suhi
• Haundi	Handi	• Monastegi	Monasterio	• Sujeto	Subjektu
• Hile	Hil, hilabete	• Motore	Motor	• Susa	Ziza
• Hipokresia	Hipokrisia	• Neumonia	Pneumonia	• Sustantibo	Substantibo
• Hortzore	Hortzetako	• Nonnahi	Nonahi	• Sustar	Zuztar
	pasta	• Objetu	Objektu	• Tantu	Tanto
• Hostia	Ostia	• Ohostu	Ostu	• Taxista	Taxilari
• Ihardun	Jardun	• Paeila	Paella	• Txanpu	Xanpu
• Ihauteri	Inauteri	• Pake	Bake	• Txingurri	Txingurri
• Ikutu	Ukutu	• Panpin	Panpina	• Untzi	Ontzi
• Ileapaindegi	Ile apaindegi	• Parkatu	Barkatu	• Xagu	Sagu
• Irakurlego	Irakurleria,	• Parrafo	Paragrafo	• Xirimiri	Zirimiri
	irakurleak	• Peaje	Bidesari,	• Yogur	Jogurt
• Janaridenda	Janari denda		ordaintoki	• Zai	Zain
• Jubilazio	Erretiro	• Pekatu	Bekatu	• Zentru	Zentro
• Kabia	Habia	• Piszina	Igerileku	• Zumo	Zuku
• Kainabera	Kanabera	• Pitxi	Bitxi	• Zuzpertz	Suzpertz



Martitzenean Aramaion grabatu zen GOITBko albistegi berezia.

ARRASATE PRESS

GOITB emititzen hasi zen astelehenean

Joan zen astean aurreratu genizuen bezala, astelehenean hasi zen emititzen Goiena Telebista. Asteleheneetik eguakitzera bitartean, albistegi bereziak egin dira herriz herri. Arrasaten hasi eta Leintz-Gatzagara arte. Arrasaten Uarkape frontoian grabatu zuten astelehenean eta Leintz-Gatzagan, gaur arratsaldean, hemen ere bertako pilotalekuan. Gainontzeko herrietan, hau da, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Aramaion, herriko plazetatik egin dituzte albistegiak.

GOITBren Leintzeko adarraren abiatzea dela eta, informatibo bereziak izan dira. Hogeita bost minutuko albistegi bereziak zatirik handiena herrietako berriek hartu dute: alkateak eta euskara elkarteetako lehendakariak elkarrizketatu dira, eta herrietako irudiak bota dira. Albistegiak kalean grabatu direnez, jende ugari hurbildu da saioak nola egin diren ikustera. Jakinmin handia piztu du herrietan GOITBren abiatzeak. Eguraldia ere lagun izan dugu eta horrek lanak erraztu egin ditu.

Elgetako Udalak bai Goiena egitasmoari

Elgetako Udalak orain dela pare bat aste onartu zuten Goiena egitasmoa diruz laguntzeko Elgetari dagokion zatia. Beraz, Debagoieneko eta Aramaioko zazpi udalek baietza eman diote, dagoeneko, Goiena egitasmoari. Oraindik erabakirik hartu ez dutenak Bergarako eta Oñatiko Udalak dira. Bestalde, Goienak hainbat harreman izan ditu Jaurilaritzako eta Diputazioko ordezkariekin. Bi erakundeotan, egitasmoa begi onez hartu dute eta bultzatzeko prest agertu dira, nahiz eta oraindik ezer zehaztu ez den arren.

ETBrekin harremanak Goiena Telebistak

Euskal Telebistak eta Goiena Telebistak, bien arteko lankidetzaz bultzatu eta sentotu nahi dute. Bi erakundeen arteko harremanak oso onak dira eta hartu eman horiek formaldu nahiko lituzke GOITBk. Goiena Telebistak ETBrako berriemate lanak egingo lituzke geure eremuan eta lan hori diruz ordainduko luke ETBk. Bestalde, bi erakundeak lankide izanik, Goiena Telebistak lehenatasuna izango luke ETBk soberan izan ditzakeen tresnak eta dekoratuak hartzerako orduan.


Pazkuei buruzko saio berezia GOITBn

Pentekoste jaiak gain ganean ditugu, eta GOITBn ere prestatzen hasiak dira Bergarako jaietako buruzko saio berezia egiteko. Jaietako ekitaldi azpimarragarrien irudiak hartuko dira eta, horretaz gain, festa giroko imajinak eta herritarren iritziak jasoko dira. ETBko "Jaiak" moduko saioa izango da, irudi erakargarri eta freskoz betea. Ordu erdi edo hiru ordu laurdeneko iraupena izango du. Hortaz, GOITBko unitate ibiltaria eta kamarak jaietan izango ditugu, eta Bergarako lauzpabost lagun arituko dira aurkezle lanetan.

Programa berezi hau Debagoieneko gainerako herrietako jaietan ere egingo da, eta GOITB hartzen den herrietan ikusi ahal izango da bakarrik. Bergaran ezin izango dugu ikusi, GOITB gure herrian oraindik ikusten ez delako. Edozein modutan ere, Arrasate edo Leintz aldeko beste edozein herritan bizi bazarete, edota lagun edo senitartekoren bat bertakoa baduzue, jakin ezazue honako egun eta ordu haue tan eskainiko dela Pazkuetako jaietako buruzko saio bereziari: ekainaren 14an, eguaztenean, 21:30ean; hurrengo egunean, eguenean, 13:45ean eta 21:30ean eta, eguakitzean, 13:45ean. Asteburuan errepikatuko egingo da.



Jaietako berri ere izango da GOITBn.



Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.



GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



Mariaren Lagundia Ikastola


GIZARTE INTEGRAZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Goi mailako heziketa zikloak



Teknikari honek Gizarte interbentzio sailean egingo du lan. Orokorrean edozein egitura edo erakunde publiko zein pribatutan jardun dezake, zeinak ekintza nagusizat Giza Interbentzioa edukiko duten.

- SARRERA BALDINTZAK: Ondorengo ikasketetatik bat eduki behar da bukatuta: LOGSE batxilergoa 2. maila; REM 2. zikloa; UBI; LH II; 20 urte beteak izanez gero: sarrerako proba bidez.
- IRAUPENA: 1.700 ordu, bi ikasturte eta zortzi modulotan banatua.
- MODULOAK: maila teorikoa (1.100 ordu) eta maila praktikoa (600 ordu lantokietan praktikak).



Mariaren Lagundia
Ikastola



Izena emateko eta matrikulaziorako epeak
Aurrematrikulazioa ekainaren 1etik 12ra

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. Bergara

Tf. 943 76 25 40/41. Faxe: 943 76 33 31

EIB Euskal Ikastolen Batzako kidea

tarjeta **gazte**kutxa txartela



"Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hementxe daukazu **GazteKutxa** txartel berria. Doakoa da, handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu 'Dohainik Erosi' sustapenaren baitan."


Besterik behar, ala?

www.gazteKutxa.net
e-mail: gazteKutxa@kutxa.es
900 40 41 42

Egin klik! hemen, abenturan jarraitu eta sariak irabazi ahal izateko.



gaztekutxa



Miguel ALTUNA institutua




2000/2001 ikasturterako
Hezkuntza-eskaintza

kalitateko eskaintza



GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxugintza



ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

Ohiko matrikula epea: uztailaren 3tik 7ra
Ordutegia: 09:00etatik 13:00era



- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Miguel Altuna Institutua. Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Berri gehiago nahi baduzu
deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetariak: Marijo Deograciaseta Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 59. zenbakia. 2000 ko maiatzaren 26a.

“Zaharkinak” erakusketa frontoian

Ekainaren 11ra arte zabalik baserrietako tresnen erakusketa

Joan den maiatzaren 20an, San Isidro feria egunean, herriko pilotalekuan Zaharkinak erakusketa zabaldu zen. Inaugurazio ekitaldian, Mireia Unamuno Antzuolako alkateak, Fermin Leizaola etnologoak eta Luis Mari Bandres Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak hartu zuten parte.

Aranzadi Zientzi Elkartearen gidaritzapean eta Antzuolako udalaren laguntzaz, Antzuolako baserri-auzo denetan ibili dira material bila. Guztira berrogeita hamar bat baserri bisitatu dituzte eta mila eta bostehun bat pieza lortu dituzte erakusketa honetarako. Etnologoaren hitzetan, batez ere, baserriko lanabesak aurkitu dituzte, hala nola, trokak, goldak, eskuarak, gurdiak eta baita baserriko altzari ugari ere: kutzak, armairuak, pitxarrak. Gauzarik interesgarri eta kuriosoenen artean dokumentuak aipatu dituzte: argazkiak, zerga ordainketarako paperak, gerra garaioak, baita kuttunak eta errosarioak ere.

Erakusketaren helburua gazteei beraien aitona-amonon bizimodua erakustea eta transmititzea da. Aranzadi elkar-tekoen esanetan, “gure aurrekoek nola lan egiten zuten eta nola bizi ziren gaur egungo belunaldiei transmititzea garrantzitsua iruditzen zaigu”; eta helburu honekin dabilta azken urte hauetan Euskal Herriko hainbat herritan horrelako erakusketak antolatzen.

Erakusketa maiatzaren 20tik ekainaren 11ra bitartean egongo da zabalik. Asteazken zehar bisita gidatuak egongo dira. Interesatuok, udaletxera jo. ■



Jende ugari elkartu zen pilotalekuan erakusketan asteburuan.

■ ■ ■
Eguakitzetan 18:00-20:00. Zapatu eta
domeketan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
■ ■ ■

Sarriegi taldearen afaria zapatuan

Sarriegik futbola laga duen arren, taldeak bere izenarekin segituko du

Zapatuan futbol zaleen eta futbolarien afaria egingo da herrian. Sarriegi taldeak antolatutako afaria izango da, eta hantxe egingo da orain arte Realeko jokalaria izan den Iker Sarriegi futbol jokalaria.

Iker Sarriegik futbola laga duen arren, Sarriegi taldeak, bere izena izaten segituko duela baieztatu digute. "Aurrera segituko dugu, izen horrek merezi du eta". Hori dela eta, afaria egingo dute larunbatean. Leku Berri jatetxean egingo dute eta Antiguokoaz gain, Realeko beste jokari batzuk ere etorriko dira. Orain arte han egongo direla baieztatu dutenen artean, Mikel Aranburu eta Igor Jauregi ditugu.

Eurekin batera Euskadi Irratiko kiroletako esatari bat ere egongo da, Jon Valenziaga zumarragarra. Berak Realaren jarraipena egiten duela eta, afariari giroa jartzeko gonbidatu dute Sarriegi taldekoek.



Aste Santuan Galizian izan ziren taldekideak. Ondo pasatu zuten!

LEHENDAKARI ALDAKETA

Sarriegi taldea sortu zela bi urte pasa dira. Eta dagoeneko lehendakari aldaketa egitea tokatzen da. Orain arte, Andoni Azkargortak egin du lan hori. Aurrerantzean, berriz, Mikel Gabilondo "Bekok" beteko du lehendakari kargua.



Manifestazio jendetsua euskal presoaren eskubideen alde

Domekan egin zen manifestazioan jende ugari elkartu zen. Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataformatik ere ordezkari asko egon zen. Izan ere, manifestazioa Debagoieneko plataformek antolatu zuten. Hurrengo ekitaldia Oñatin edo Antzuolan izango dela ere aurreratu zuten plataformako kideek.

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

AITZ-GARBI

**taberna
jatetxea**

**Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Ariñ

JATETXEA

**Euskal
sukaldaritza**

**Eguneko
menua**

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94



Aurtengo txapelkun eta azpitxapelkunak garaikurrekin.

Biteri aita-semeak pala txapelketan irabazle

Biteri aita-semeak eta Azkarate anaiak dira aurtengo pala txapelketako irabazleak.

Joan den maiatzaren 13an, zapa-tuan, jokatu ziren finalak eta lehen mailan, Azkarate anaiek 30 eta 24 irabazi

zieten Arbulu eta Zabalori eta 2. mailan, Biteri aita-semeek 30 eta 23, Pagaldai eta Zubikarairi.

Aurten 12 bikotek hartu dute parte txapelketan. Horietatik zazpi lehen mailan eta bostek bigarrenen.

JAIETAKO EGITARAUAREN LEHIAKETA

Antzuolako jaietako programaren azala egiteko lehiaketa antolatu du Udalak. Lanak aurkezteko epea ekainaren 14an amaituko da. "Antzuolako jaixak 2000. uztailak 13, 14, 15 eta 16" testua eraman beharko du jaietako egitarauaren azala izateko aukezten den lanak. Irabazleak 25.000 pta. eskuratuko ditu. Argibidea gehiago, udaletxean.

BALKOI ETA LEIHOETAKO LORE LEHIAKETA

Ekainaren 23an banatuko dira balkoi eta leihoetako lore-apainketa lehiaketako sariak. Irabazleak 15.000 pta eskuratuko ditu. Baina bi sari banatuko dira. Lehenengoan, alde zaharreko balkoi eta leihoetako lore ederrenak sarituko dira eta bigarrenen, berriz, auzo edo etxe berriagoko balkoi eta leihoetako lorek ederrenak. Bi sariak 15.000 pta.koak izango dira. Bosgarren aldia da lehiaketa hau antolatzen dela. Uda datorrela eta, herria apaintzeko modu ederra da. Beraz, oraindik loreak txukundu ez badituzue ere, denboraz zabortzate. Dagoeneko epaileak hasi dira herriko balkoi eta leihoei begira. Adi beraz!

LEHIAKETA



bertako hizkeria

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1: B-Eruango nazu Bergararaiño?

2: B-Nere amandriak bi seme-alaba izen zittuan: Peru eta Marixa.

Sarituak: Itziar Perez eta Ibone Aranguren

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburategixan, **DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian **5.000** pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.



Zela esaten dira berba egitterakuan?

1. A Etxatzu ezer esan ala?
B Ez jatzu ezer esan ala?

2. A Etxian ez da(g)o iñor
B Etxian ezta(g)o iñor.

Izen-abizenak eta telefonua:

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Denetik ikusteko aukera egon zen Herriko Plazan.



Saltokiak ugariak izan ziren.



Ganaduzaleek ere izan zuten zer ikusteko.



Baina umeeek, ardiak nahiago.

Giro ona egin zuen eta feria arrakastatsua izan zen San Isidrotan

Aurten ere egin da maiatzaren 20an San Isidro feria plazan. Giroak asko lagundu zuen, eguraldi oso ona egin zuen zapatuan. Eta giroak lagunduta edo, jen-

de asko hurbildu zen feria ikusi eta goiz pasa egitera.

Behi, asto, zaldi, ardi, ahuntz eta txerriez gain, inguruko herrietatik etorri-

tako saltokiak ere ikusi genituen, denak baserri giroko produktuekin: txorizoak, gaztak, erroskilak, euskal pastelak etab...



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak

Teilatua • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXEIA, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE**

Eduarne. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotritizatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!

Ipintzako futbol txapelketa martxan joan zen astelehenetik

Astelehenean eman ziztaion hasiera Ipintzako nagusien futbol txapelketari. Lau multzotan banatuta, 22 talde izango dira lehiari. Hasieran, gehienez, 20 talde onartu behar zituzten antolatzaileek, baina beste bi talderi ere tartea lagatzea erabaki zen. Ondorioz, lehenbiziko fasean, partiduak 70 minutuko iraupenekoak izan beharrean, 50 minutukoak izango dira. Aste honetan hiru partidu jokatu dira egunero, eta zapatuetan ere partiduak izango dira Ipintzan.

Esan bezala, lau multzo bereiztu dira. Horietako bietan, seina talde izango dira lehiari, eta beste bi multzotan, bosna talde. Multzo bakoitzeko bi talderik onenak sailkatuko dira final laurdenak jokatzeko.



Argazkian, astelehenean jokaturako partidu bateko irudia.

NESKAK ETA BETERANOAK

Bestalde, nesken futbol zazpiko txapelketan, kadete mailan, zazpi taldek eman dute parte hartzeko izena. Senior mailan ere zazpi talde izango dira lehiari datozen ekainaren 7tik aurrera. Eta nobedade moduan, aurtengo 30 urtetik gorakoei zu-

zendutako futbol txapelketa ere antolatu da, hauek ere zelai erdian jokatu dutelarik, zazpi jokalarirekin hain zuzen. Izen-ematea oraindik itxi ez den arren, oraingoz 9 taldek konpetituko dute. Oraindik ez da zehaztu beteranoen txapelketa noiz hasiko den.

ASTE HONETAKO EMAITZAK

Txokokuak-Altos Pornos	1-3
Tojhu-La Juve	3-0
Ezinleike-Osintxu	0-3
U.T.A.-Angiozar	1-4
Arloteak-Bildurbarek Opel Lam	0-0
Hotel Amusikabar	
A Ze Flaxa Guipuzcoana	1-2
Matxakategi-Game over	2-1
Fatxurtu-Fo Fo Fo	1-2
Gore-Mongatxurak	1-3

PARTIDUAK

ZAPATUA 27

12:45. Angiozar-Mongitxurak

13:45. Fatxurtu-Txokokuak

ASTELEHENA 29

19:00. Gore-Tojhu

20:00. Matxakategi-U.T.A

21:00. Beccia-Ezinleike

MARTITZENA 30

19:30. Down-A Ze Flaxa

20:30. Fo Fo Fo-Bildurbarek

EGUAZTENA 31

19:15. Mongatxurak-Wartxutale

20:30. Game over-Mongitxurak

EGUAKITZA 2

19:15. Matxakategi-Angiozar




Karatekak sarituak

Herriko 27 karatekak hartu zuten parte Eibarren jokaturako III. Karate Txapelketan. Kata modalitatean, aurrebenjamin mailan, Asier Ribera lehena, eta Mikel Aginagalde hirugarrena izan genituen. Nesketan, Ana Inclan izan zen irabazlea, Ane Vicenteren aurretik. Benjaminetan, Ugaitz Iruretagoienak eskuratu zuen lehen postua, Kepa Odriozolak bigarrena eta Patxi Larrañagak hirugarrena. Nesken artean, Maddi Larrea izan zen irabazlea eta Jasmina Moreno bigarrena. Infantiletan, Raket Blancok irabazi zuen eta bigarren Miren Laskurain geratu zen. Mutiletan, Aidel Diaz 2. eta Unai Zabarte 3. sailkatu ziren. Kumite modalitatean, Jon Gonzalez, Aitor Jaso eta Unai Zabarte izan genituen lehen postuetan.

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak


943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

Herriko gimnastak sasoi onean

Bergarako gimnastek sasoi onean daudela erakutsi zuten zapatuan Labagaraietan jokaturako Gipuzkoako eskolarteko txapelketan. Bertan probintzia osoko 150 gimnasta inguruk hartu zuten parte, goiz eta arratsalde izandako saioetan. Bergararrak goizean aritu ziren lehian eta Ariznoa gimnasia erritmikoko taldekideek Aranzadi Ikastola ordezkatu zuten zapatuko txapelketan. Alebin mailan, Irati Arteaga izan genuen herriko onena, hiru garren postua eskuratuz. Virginia Odriozola seigarren tokian sailkatu zen, Maialen Legorburu antzuolarra zortzigarrena izan genuen eta Sarai Gallego, azkenik, 11. tokian geratu zen. Kiroldegian ikusle ugari bildu zen eta bertaratuek alebin, infantil eta kadete mailako gimnastek eskainitako ikuskizunarekin gozatu zuten.



Argazkian, Irati Arteaga zapatuan lortutako trofeoarekin.

Taldekako saioan, aldiz, bergararrak ez ziren hain ondo aritu. Hamar talde izan ziren lehian eta Bergarako taldea 8. tokian sailkatu zen. Hala ere, Helena Herreros entrenatzailea pozik azaldu da bere taldeko neskek emandako mailarekin; "taldekako sailkapena ez zen guk uste bezain ona izan baina, indibidualki, maila ona erakutsi dugula uste dut".

FERNANDEZ ETA NARBAEZ

Bestalde, Ane Miren Fernandezek laugarren postua lortu zuen domekan Altzan jokaturako Euskadiko banakako gimnasia txapelketan, jubenil mailan. Juniorretan, berriz, Aintzane Narvaez bosgarren tokian sailkatu zen. Aintzane eta Ane Miren ez dute Espainiako banakako txapelketarako txartelik lortu baina taldeak proban izango dira.

Entrenatzaile bila Bergara

Jesus Mari Biain Bergarako futbol taldeko entrenatzaileak uko egin dio hurrengo denboraldian taldea entrenatzen jarraitzeari. Bergarako zuzendaritzako kideak bere ordezkoa fitxatzeko lanetan ari dira.

Bergara Hiriko finalak

Bergara Hiria pilota txapelketako finalak jokatu dira datorren eguakitzean, ekainak 2, 19:30ean Udal Pilotalekuan. Bestalde, Igor Gutierrezek galdu egin zuen domekan Elgetan, 23 urtez azpikoan lau eta erdiko txapelketan.

Tenis finala domekan

Jorge Aranesek eta Javier Olasok tenis txapelketako finala jokatu dute domekan, 12:00etan, Kiroldegiko pistan. Aurretik, 10:00etan, Eneko Ugalde eta Jose Caballero izango dira aurrez aurre, 3. posturako partiduan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Soraluze

Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 17:00. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Urola

Jubenil mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Intxaurren

Kadete mutilak
Zapatua. 11:00. Kiroldegia

PILOTA

BERGARA HIRIA. FINALAK

Muguruza-Peñagarikano

/Etxabe-Zapirain (promesak)

Mikel-Albizuri

/Eguskita-Erauskin I (lehen maila)

Eguakitza, hilak 2, 19:30ean

Udal Pilotalekuan

TENIS

TENIS TXAPELKETAKO FINALA 12:00etan

Kiroldegian.

Aurretik, 10:00etan,

3. eta 4. posturako partidua

jokatuko da 10:00etan.

PALA TXAPELKETA

Pala txapelketaren 4. Jardunaldia bihar,

zapatua, 15:00etatik

aurrera Angiozarko Arbiaska

pilotalekuan.

Igerilekuak eguzkia hartzeko

Datorren astelehenetik aurrera, maiatzak 29, Agorrosingo igerilekuan eguzkia hartzeko aukera izango da. Igerilekuak astebarruan, astelehenetik ostiralera, izango dira zabalik, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara.

PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09



Labegaraietako futbito txapelketa

KOPAKO FINALA ZAPATUAN

Bigarren urtez jarraian, **Errotagain** taldeak liga txapelketa irabazi zuen domekan, **Mongatxurrak** taldeari 4-0eko emaitzarekin irabazi ostean. Partidu ikusgarria izan zen eta markagailuak adierazten duena baino borrokatuagoa, **Mongatxurrak** ere, bere aukerak izan baitzituen golak egiteko. Errotagainen golak Jose Mari Romerok, Carlos Romerok eta Aitor Antonek



egin zituzten. Laugarrena **Mongatxurakeko** jokalaria batek bere atean sartu zuen. Bihar, zapatua, **Bildurbarek** taldeak (argazkian) eta **Errotagainek**, kopa txapelketako finala jokatuko dute, 19:00etatik aurrera. Iazko txapelketan, **Bildurbarek** ligako azpitxapelduna izan genuen, **Errotagainen** atzetik, eta, bihar, kopako trofeoa eskuratzen saiatuko dira aurtengo txapelketako talderik indartsuena izan den ekipoaren aurka. **Bildurbarek** taldeak kopa irabaziz gero, txapeldunen arteko beste partidu bat jokatuko da domekan.

federatuen emaitzak

FUTBOLA

Orioko 2; Bergara 8

Lehen mailako jubenilak

Bergara 3; Ordizia 0

Bigarren mailako jubenilak

Bergara 1; Usurbil 0

Neskak (kopako finalerdia)

Ilintxa 0, Bergara 5

Ohorezko kadeteak

ESKUBALOIA

Arrate 29; Bergara 24

Senior mutilak

Almen 19; Bergara 19

Jubenil mutilak

Aloña 22; Bergara 10

Jubenil neskek

Elgoibar 30; Bergara 9

Kadete mutilak

ARETO FUTBOLA

Bergara 5; Antxeta 6

Senior mutilak

independentista al zara?

ezkertiarra al zara?

euskalherriko ezkertiarren

batasuna

ongi etorriak
batasunaren
prozesura

ASANBLADA

Ekainaren 7an, eguaztena, 19:00etan
Elementaleko aretoan

kronika nesken futbol taldea

Neskak finalera

BERGARA 1

USURBIL 0

Bergara: Nerea Elkoroberezibar, Uxue Lazkano, Goreti Elorza, Saioa Bolibar, Jasone Larrañaga, Silvia Valor, Ana Gonzalez, Ainara Laskurain (Maidar Birunbrales, 55.min.), Maite Lazkano (Leixeia Larrañaga, 65.min.), Maidar Urbina eta Jone Azkarate.



Argazkian, Usurbili nagusitu zitzaion Bergarako taldea.

Gol bat nahikoa izan zitzaion Bergarako nesken taldeari kopako finalerako sailkapena eskuratzeko. Bergararrek joko praktikoa egin zuten zapatuan, eta euren helburua lortu zuten partidua amaieran. Hainmargarren minutuan iritsi zen partiduko gol bakarra:

Jasone Larrañagak falta bat atera zuen eta Ana Gonzalezek, buruaz, baloia sareetara bidali zuen. Gola sartu ondoren, etxekoek lasaiago jokatu zuten, nahiz eta usurbildarrek zelai erdian presioa areagotu. Lehen zatian amaieran, etxekoek ne-

ke piskat somatu zuten eta usurbildarrak nagusitu ziren, nahiz eta arrisku gehiegi sortu ez.

Bigarren zatian, Usurbilekoak berdinketaren bila zelairatu ziren eta partiduko gol aukerarik onenetakoa izan zuten 15. minutuan.

Begarako defentsaren des-piste bat aprobetxatuz, Usurbileko aurrelari batek berdinketa lortzeko aukera paregabea izan zuen, baina gaizki errematatu zuen buruaz area txikian eta baloia langa gainetik atera zen. Ondoren, Bergarak, kontrerasoan, arriskua sortu zuen. Lehenbizi Maidar Urbina jokaldi ederra egin zuen baina defentsa gaintitu eta atezainaren aurrean bakarrik gelditzera zihoanean falta egin zioten area er-tzean. Partidua amaitzean zegoela, Jone Azkaratek beste aukera garbi bat izan zuen, baina, atezainaren aurrean geratu, eta bere jaurtiketa kanpora irten zen.

Esan bezala, Bergarak kopako finalerako sailkatzea lortu zuen. Duela hiru urte Dunboaren aurka kopako finala galdu zuten penalti jaurtiketetan, Azkoitian. Orduko jokalaria batzuk Bergaran jarraitzen dute oraindik eta orduan ihes egin zien trofeoa lortzeko irriketan izango dira. Finalean Zarautzeko Antoniano-ren aurka jokatu dute ekainaren hasieran.

IGNACIO DOBAO / Bergarako jubenil futbol taldekoa

"Gasteizen 4 urteko kontratua eskaini didate"

Denboraldi bikaina burutu ondoren, Ignacio Dobaok (18 urte) Aurrera Vitoria futbol taldearekin fitxatu du datozen lau urteetarako. Aurten 26 gol egin ditu Bergarako lehen mailako jubenil taldean.

G. Zergatik aukeratu duzu Aurreraren eskaintza?

E. Interes gehien azaldu dutelako nigan, eta, beraien, eskaintzarik onena zelako. Lau urteko kontratua eskaini didate, eta, horrez gain, pisua eta ikasketak ordainduko dizkidate. Realekoek ere proba bat egin zidaten, baina gasteiztarren eskaintzak gehiago konbentzitu ninduen.

G. Lesio larria izan zenuen due-

la hilabate batzuk.

E. Bai, Realekin proba egiten ari nintzela, Zubietan, belauneko kanpoko ligamentoa hautsi nuen. Zorionez, dagoeneko lesioa gaintu dut.

G. Jokalari moduan, nola definituko zenuke zure burua?

E. Erdialdean, ezkerrean jokutzen dut, eta dudan guztia ematen saiatzen naiz. Errematatze-ko orduan ere ondo nabil. Aurten gol dezente egin ditut.

G. Denboraldi borobila egin duzue.

E. Bai. Joan zen astean Orion irabazi on-

doren, lehen postua eskuratu dugu, Eibartarrak taldeak galdu egin baitzuen. Gauzak primeran joan zaizkigu.

G. Athleticeen talde filiala da Aurrera.

E. Bai, eta Alavesekin ribalidate handia du.

Hasiera batean, jubenil fitxa izan arren, hirugarren mailan jokatuko dut. Etorkizunean? Auskalo! Ni Realekoa izan naiz beti.

G. Gustoko jokalaria bat?

E. Askok dira, Djalminha eta Rivaldo adibidez.



MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte,12 Bergara Tel.: 943 76 22 96

Peugeot 106 Long Beach 1.5 Diesel			IK, IZ, KE, LD	*5
Peugeot 206 SR 1.4			IK, IZ, KE, LD, Airbag	*5
Peugeot 206 XT 2.0 HDI			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*6
Peugeot 306 2.0 XSI			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*7
Peugeot 406 SR TD			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*7
Peugeot 406 ST 2.0			IK, IZ, KE, LD, Airbag, AG	*6

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 306 Stile Break 1.6				*6
Renault Megane Coupe 1.9 DTI				*7
Renault Clio 1.4				*5
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Seat Ibiza TDI				*6
Peugeot 406 Coupe V6				*7
Peugeot 306 XT 1.8 Automatikoa				*6

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

Ford Focus 1.6i 16v 5 ate	SS-BG	1999	AG, IZ, KE, LD, IK, 6.000 km.	*6
Honda Concerto 1.5i 16v	BI-CG	1994	AG, IZ, KE, LD, IK, AH	*3
Ford Mondeo R.S SP V6	SS-BG	1999	AH, IE, IK, IZ, KE, KL, LD, LK	*7
Seat Toledo Sport 16v	SS-AL	1991	AG, IE, IK, IZ, KE, LD, LK	*3
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LK, LD, IK	*2
Ford Orion 1.6 Ghia	SS-AD	1989	IK, IZ, KE	*1

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g Arrasate Tel.: 943 79 41 98

Renault Megane	SS-AX	1996	IK, 5 ate, LD, IZ	*5
Fiat Uno	SS-AL	1992	IK, 5 ate	*2
Fiat Tipo	VI-K	1988	IK, 3 ate	*1
Peugeot 205	VI-J	1988	IK, 5 ate	*1
Fiat Punto		1999		*4

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTArate arte *5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *2: 300.000-500.000 PTA *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA *8: 3.000.000 PTAtik aurrera

DENA AUTO
 Tel.: 943 71 23 91
 943 76 03 97

AUTO DESGUACES BERGARA

 Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)
BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

PENAKOBA

 Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
 ARRASATE OÑATI

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

MECA. San Andres, 8 Arrasate Tel.: 943 71 21 67

Renault Megane Alize 1.6	B-TX	1998		1.450.000
Renault 5 1.1 Five 3 ate	BI-BT	1993		375.000
Saab 9000 CD 2.3i	M-OH	1993		1.290.000
Citroen AX 1.1	SS-AG	1989		255.000
Jeep Cherokee 2.1 TD	NA-AH	1990		1.050.000
Renault Twingo Pack 2	SS-BF	1999		1.050.000
Opel Vectra 2.0i GL	SS-AL	1992		590.000
Ford Escort 1.6 Atlanta	SS-AS	1994		750.000

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara Tel.: 943 76 47 74

Opel Tigra 1.4i 16v	Urtebete	1999	AG, Llantak, 2 airbag, Pintura metalizatu, Hifi	*6
Opel Astra (hainbat)	Urtebete	1999	AG, ABS, 2 airbag, Hifi, Bolantearen altuera aldagarria	*6,*7
Opel Vectra (hainbat)	Urtebete	1999	AG, ABS, 2 airbag, Hifi, Pintura metalizatu	*7
Opel Omega 2.5 TD	Urtebete	1999	Full Equip	*8
Nissan Micra 1.0s 16	3 urte	1997	Llantak, Hifi	*4
Subaru Legacy GX 4WD	8 urte	1992	AG, ABS, Hifi, KE, IZ	*3
Renault 21 1.7 5 ate	9 urte	1991	Hifi	*4
Peugeot 309 1.6	8 urte	1992	Hifi, IZ	*4
Citroen BX TGE	9 urte	1991	Hifi	*1
Auto gehiago ditugu prezio onetan				Kontsultatzeko

REPARACIONES LENIZ, C.B. Aingeru Ibiltokia, 31 Eskoriatza Tel.: 943 71 50 61

Peugeot 205 Plus	SS-6795-AI	1990		
Rover 214 SI	SS-7350-AN	1991		
Citroen AX Stilo	SS-8730-AC	1988		

GARAJE MURILLO
Mekanika orokorra
Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



**SAN MARTIN
KARROZERIAK**
Autoaren konponketa orokorrean
San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekambioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95


AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika

Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58


Larringan
GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA
Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE
Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO
Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

DENA AUTO 12. alea. 2000.eko maiatza

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

San Antonio.
Deitu 943 76 15 06
telefonora.

Koldo Eleizalde.
943 76 50 86 (gauzez).

Artekalea.
Deitu 619 326 228
telefonora.

Iraburu kalea (Bolu).
943 76 08 47 (gauzez).

Bidekurutzeta.
619 133 836.

Apartamentua Zubietan.
Erabat berriztua, 50 m².
Deitu 670 901 310
telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torrevie-
jan, udan. Hondartzatik
gertu. 943 78 14 72.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua edo logela hartu-
ko nuke alokairuan
Bergaran edo inguruan.
Deitu 646 975 367
telefonora.

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
943 76 04 70 /11 01.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

<p>1. ETXEBIZITZAK Saldu Erosi Errentan emateko Errentan hartzeko Etxe konpartituak Bestelakoak</p>	<p>3. LOKALAK Saldu Erosi Errentan emateko Errentan hartzeko Bestelakoak</p>	<p>5. IRAKASKUNTZA Eskaintzak Eskaerak Bestelakoak</p>	<p>8. DENETARIK Saldu Erosi Eman Hartu Trukatu Galdu Aurkitu Bestelakoak</p>
<p>2. GARAJEAK Saldu Erosi Errentan emateko Errentan hartzeko Bestelakoak</p>	<p>4. LANA Eskaintzak Eskaerak Bestelakoak</p>	<p>6. IBILGAILUAK Saldu Erosi Bestelakoak</p>	<p>9. HARREMANAK Agurrak Kontaktuak Deiak Bestelakoak</p>
		<p>7. ANIMALIAK Saldu Erosi Bestelakoak</p>	

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea etxeko
lanak egiteko gertu.
666 643 490 (Herminia).

Auxiliar lana egingo
nuke. 616 848 362
(Monika).

Mutila edozertan lan
egiteko gertu.
600 600 531.

Neska edozertan lan
egiteko gertu.
646 611 383.

Dendako lanetan
esperientzia duen
emakumezkoa lanerako
gertu. 943 76 07 69.

Eskaiera eta garajeak
garbitzen esperientzia
duen pertsona lanerako
gertu. 943 76 35 38
(Antonio).

Mutil gaztea lanerako
gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile
edo beste edozertan
jarduteko gertu.
646 820 371.

ESKAERAK

Emakumea behar da
umeak zaindu eta
etxeko lanak egiteko.

ETXE KONPARTITUAK

Donostiako zentruan
pisu handia konpartitu-
ko nuke urte osoan.
670 087 427 (Ainhoa).

Etxea konpartituko nuke.
627 046 374 (Diego).

Pisua osatzeko neska
behar da. 943 76 55 26.

2. GARAJEAK

SALDU

Bolu. Prezio ona.
943 76 47 99 (gauzez).

Bolu. 2 plaza.
Deitu 616 049 865
telefonora.

Antzuolan, Zurategin.
943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi.
Deitu 943 76 47 16
telefonora.

Masterreka.
Deitu 696 460 406
telefonora.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun.
Deitu 943 76 19 6
telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan
Boni Laskurainen.
943 76 47 67.

Garajea alokairuan
Zubiaurren.
943 76 23 53.

Garajea alokairuan
Santa Marinaran.
Deitu 943 76 41 8
telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea har-
tuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi
nahi nuke S. Lorentzon.
300 m².
Deitu 607 82 53 06
telefonora.


ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18m²)
lokalak alokairuan.
606 96 23 80.

Lokala alokairuan Mar-
tokoan. 943 76 11 13.

JOKAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA

Oñatik b.h. institutua

2000-2001 Eskaintza

HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)

- Erdi Maila:
 - Mekanizazioa
 - Landa eta Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzea
- Goi Mailakoa:
 - Gizarte eta Kultur animazioa

IZEN EMATEKO EPEA:
Ekainaren 1etik 12ra
TOKIA:
Larraña Ikastetxea
Tel.: 943 78 21 50
Faxa: 943 78 19 08

Irailetik aurrera.
943 76 08 08.

Emakumea behar da
etxeko lanak egin eta
haurrak zaintzeko.
943 76 35 11.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Klase partikularrak
ematen ditut, maila
denetan. 656 752 739
(Ainara).

Ingeles klaseak ematen
ditut: OHO-DBH.
Ekaina eta utzaila.
943 76 54 12 (Irene).

Kitarra, soinu eta pan-
dero klaseak ematen
ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako
klaseak hartuko nituzke
(injinerutza, 1. maila).
943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako
C programari buruzko
klaseak hartuko nituzte.
Deitu 943 78 09 66
telefonora.

Logseko 1. mailako fisi-
ka, kimika eta matema-
tikako klaseak hartuko
nituzke. 943 76 10 44.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Motorra. 220.000 pta.
943 76 03 72.

Opel Kadett (SS-AL).
667 209 279 (Iker).
18:30etik aurrera).

Ford Escort 16V
familiarra (SS-BB).
943 79 91 27.

Seat Ibiza (SS-AC).
150.000 pta.
943 72 22 77.

Scooter 50cc, Gilera
Runner. Ia berria.
686 704 693 (Asier).

Seat Ibiza 1.2 (SS-AP).
64.000 km. Prezio ona.
943 76 28 01.

Cagiva Roadster
motorra. 3.800 km.
220.000 pta. kaskoa
eta kandadua opari.
943 76 03 72.

Kymco Chooper 125
errepideko motorra.
Prezio onean.
610 972 250 (Anton).

Renault Clio 16V.
93.000 km., egoera
onean. 943 76 16 02.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y).
Deitu 943 76 37 84
telefonora.

Suzuki motorra.
Ia berria. 130.000 PTA.
943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA.
Egoera onean.
943 76 54 19 (Raul).

7. ANIMALIAK

SALDU

Cooker ingeles txakur-
kumeak. Merke. Hil eta
erdi. 636 877 574.

Katuak. Oso merke.
Siamesak. Hilabete.
943 76 24 13 (Maite).

Artzain txakurrak
salgai. 656 728 500.

Boxer eta alemaniar
artzain arrazako txakur-
kumeak, pedigridunak.
696 057 346.

8. DENETARIK

SALDU

Kirol arku eta
osagarriak salgai.
943 76 08 18.

Butano sua salgai.
636 877 574.

Jangelako mahaia eta
6 aulki. 943 76 34 48.

Bañareseko kanpinean

modulo bat salgai.
Ekipatua. Bista ederrak.
656 748 337.

Kawasaki GPZ 400 Fil
motor beltza. 31.000
km. 150.000 PTA.
943 70 21 11.

Cagiva Custom 125
motorra. 3.800 km.
120.000 pta.
Deitu 943 76 03 72
telefonora.

Pianoa salgai. Oso
merke. 943 76 26 35.

Mendiko bizikleta bi.
Merke. 943 76 15 76.

Yashica 108
Multiprogram kamera.
943 76 08 27
(20:00-22:00).


AURKITU

Ibarrondo auzoan aurki-
tutako bi giltza Antzuo-
lako udaletxean daude.

9. HARREMANAK

DEIAK

Kuba edo Dominikar
Errepublikara joan
nahi dugun bi lagun
gara. Gurekin etorri
nahi baduzu, deitu
lehenbailehen:
943 76 91 27 (Aitor).



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

**INFORMATIKA
PROGRAMATZAILEAK,
40**
Bilbo. 31827/3

IGELTSEROA
Goierrri. 32418/7

PEOIA
Bilbo. 32441/4

**LANBIDE
HEZKUNTZAKO
TEKNIKARIAK
MEKANIKAN, 3**
Arabar lautada. 32450/1

**MANTENIMENDURAKO
PLANIFIKATZAILEA**
Debagoiena. 32544/1

ELEKTRIZISTAK
Arabar lautada. 32545/6

SUKALDARIA
Plentzia. 32593/5

APAREJADOREA
Arratia. 32730/5

**GOI MAILAKO
INJINERUA**
Markina-Ondarroa.
32733/3

TORNULARIA
Tolosa. 32742/2

**INGELES ETA ALEMAN
IRAKASLEA**
Arabar lautada. 32744/3

**VISUAL BASIC
PROGRAMATZAILEA**
Donostia. 32807/3

**PEOI
ESPEZIALISTAK, 5**
Debabarraena. 32810/3

ALMAZEMEROA
Sondika. 32811/5

INKESTATZAILEAK
Donostia. 32829/1

**GOI MAILAKO
INJINERUA EDO
TEKNIKOAK**
Bilbo. 32842/2

ELEKTRIZISTAK, 6
Nafarroa. 32990/1

TELEOPERATZAILEAK
Donostia. 32999/2

HARRERAGILEAK
Bilbo. 33079/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguaikizetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak
eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako
jangela



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf: 943 79 24 58



BANKINTER

Zure hipoteka merkatoko preziorik onenean

%2,95* etik aurrera

*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitartearaino

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Arantza
Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

VIRGINIA IMAZ. Pailazoa

“Zirkoetako pista ezagutu dut ‘La Nouba’ n, pailazoen etxea, azken batean”

Virginia Imaz, Oihulari Clowneko kidea Estatu Batuetan dago, “Cirque du Soleil” handiak duen zortzi ikuskizunetako batean lanean. Eguntan ikuskizunetako bat Bilbon egon da, “Quidam”; baina, ez, Virginia ez da Bilboraino etorri. Berak Disneyn darrai, “La Nouba” ikuskizunegitean egiten baitu lan. Hala ere, aurrerapen teknologikoak direla medio, berarekin egoteko aukera izan dugu, eta horra kontatu dizkigunak.

G. Zer moduz senarra eta biok Estatu Batuetan?

E. Yankilandian ondo gaude; dena den, Euskal Herriarekin askotan gogoratzen gara. Jende askorentzat Estatu Batuak urrezko ametsa badira ere, guk ez dugu hori uste. “Cirque du Soleil” Disney erdi erdian dago, eta bizi-rauteko adina moldatu gara hemengo bizimodura.

G. Eta “La Nouba”ko esperientzia?

E. Oso aberatsa, bai maila pertsonalean, bai profesionalean ere. Askok ikasi dugu. Hemen hasi arte, antzokietan lan egitera geunden ohituta, eta orain zirkoaren pista ezagutu dugu, pailazoen ohiko tokia.

G. Munduko hainbat herrialdetako jendea zaudete “La Nouba”n.

E. Mundu osoko jendearekin egin dugu topo “La Nouba”n. Toki batean geldi gauden arren, “La Nouba” ez bai-



Virginia urtarrilean itzuliko da Bergarara.

ARTXIBOA

ta mugitzen, bertan gaudenon artean kultura aniztasun izugarria dago, eta inoiz baino nomadago sentiarazten gaitu horrek. Gainera, euskaldun bakarra naiz.

G. Pol-Pol tabernan aktuatzetik orain zauden bezalako super espektakulo batean aktuatzera alde handia egongo da.

E. “Cirque”an 1.600 ikuslerentzat lan egiten ikasi dut. Horrenbeste jenderen txalo eta barreak entzuteak emozio

ia orgasmikoa sortzen du. Horrez gain, ohorea ere bada, “La Nouba”n lan egiten dutenen mailako artistekin aritzea. Baina Pol-Polak berotasun berezia du.

Bestalde, “La Nouba”k lasaitasun ekonomikoa ekarri digu, eta beste gauza batzuetarako denbora ere uzten digu. Ume bat izateko adibidez. Martxoan mutikotxo polit bat izan genuen, Ander, “La Nouba”n jaio den lehenengoa.

G. Nola jarri zinen harremanetan “Cirque du Soleil”ekin?

E. Kataluniako lagun batek, pailazoa bera ere, “Cirque”aren casting bat antolatzen lagundu zuen Bartzelonan, 1997. urtean. Clown-ak bilatzen ari ziren, eta lagunak deitu egin zidan. Casting-era aurkeztu nintzen, baina ez nuen uste aukera handirik izango nuenik, batez ere “Cirque”an lan egiten dutenen gorputz atletikoak ezagutzen nituelako. Baina 1998ko maiatzean

deitu egin zidaten, eta, ordutik, hemen nago nire senararekin.

G. Zer da egiten duzuna?

E. Hemen, Estatu Batuetan, “karakter” deitzen duten lana egiten dut. Garbiketaz arduratzen den emakume bat antzetzten dut. Clown-arekin zerikusi handia du. Ez da oso pertsonaia garrantzitsua, batez ere kontuan izanda “La Nouba”n parte hartzen duten akrobaten lana. Baina ikusleek oso ondo hartzen dute nire pertsonaia.

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurtzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2



Benito Lertxundik Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin izandako esperientzia, errepikatu egingo du Bergarako Orkestrarekin.
ANDER GILLENIA, EGUNKARIA

Hilaren 31n salgai Orkestra eta Benito Lertxundi entzuteko sarrerak

Maiatzaren 31n jarriko dira salgai Benito Lertxundik Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin batera ekainaren 9an eskainiko duen kontzerturako sarrerak. Hiru sarrera mota egongo dira: lehenengoak, 2.000 pezeta balio du; butaketan esertzeko dira, eta numeratuta daude. Bigarrenak, 1.500 pezeta balio du; bigarren pisurako baino ez dute balio, eta numeratu gabe daude. Hirugarrenak, 1.000 pezeta balio du; kantxarren bi alboetan esertzeko baino ez dute

balio eta numeratu gabe daude. Salmenta puntuak honakoak izango dira: 2.000 pezetako kasuan, soilik, Udal pilotalekuko takilan salduko dira; astegunetan 19:00etatik 21:00etara.

1.500 eta 1.000 pezetakoei dagokienez, Lazkano oinetako dendan, Ariznoa tabernan, Kultur Etxean eta Frontoiko tabernan salduko dira.

Kontzertu egunean 21:00etan irekiko da takila, legeak eskatzen duen sarrera kopurua bertan saltzeko.

Umeek euskaraz ondo pasatzeko jolas-leku ibiltaria antolatu du Jardunek

Jolas-leku ibiltaria antolatu du Jardunek: Bost eta hamar urte bitarteko neska-mutikoei dago zuzenduta, eta helburua, euskaraz berba eginez, ondo pasatzeko aukera eskaintzea da.

Herriko toki jakin batzuetan kokatuko da, bereziki umeak eta zaintzaileak biltzen diren tokietan.

Gaur, Espoioian hasi da lehenengo jolas-leku ibiltaria, eta beste bi kokaleku daude zehaztuta: ekainaren 2an Poligonoan, ziburuen ondoan, eta ekainaren 8an San Simon Arrieta plazan, 17:00etatik 19:00etara. Umeek konfidantza hartzeko jolasak landuko dira, eta aurrerantzean, euskal jolasak.

erreseinak



Aitor Arana
Haize gorria
Narratiba

Aitor Aranak, ume baten bizipen eta gogorapenak kontatzen ditu "Haize gorria"n. Gasteizko hamalau urteko mutikoak Erratzun igarotzen ditu udako oporrak gurasoekin, Berrotara baserrian. Egun batean, Miren Urkiola izeneko batek idatzitako egunerokoa aurkituko du zulo batean gordeta, "Haize Gorria" izeneko egunerokoa hain zuzen ere. Egunetik egunera, Miren hobeto ezagutzen du protagonistak, eta hura ezagutzeko gogo bizia piztuko zaio.

- Hiria liburuak. 216 orr. 1.975 pta.



Lau Behi
Emakume interesgarriak
Pop-rock

Blues doinuetan oinarritutako bi diskoen ostean, pop-rock estiloari eutsi dio hirugarren honetan Lau Behi talde donostiarrak. Horrez gain, disketxez ere aldatu du taldeak: "Lau Behi" eta "Lau Behi Bi", taldeak kaletan dituen bi diskoak, IZ disketearekin kaleratu zituzten. "Emakume Interesgarriak", kaleratu berri duena, Oihuka etxearekin plazaratu du. Disko honek hamaika abesti ditu; guztiek gizon eta emakumeen arteko harremanak dituzte oinarri, eta CD Rom bat ere aurkezten du, oso sarritua gainera. CD Rom ludikoa da, ez du taldearen informaziorik, erabiltzaileak moldatu ahalko duen musika baizik.

- Oihuka. 2.100 pta.

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerrek 32 behea. BERGARA. Telefona: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Bereziki hirigunetik ez igarotzeko errepide-zati. 2. Errekin. Kanpo, landa. 3. Nauka. Ilunabar. 4. Zalantza. Damutasuna. 5. Erne! Haizen horrek. Interjekzioa. 6. Gironako ibilgailuetan. Toki hartan. Potasioa. Tona. 7. Lehenengoa. Irudi geometrikoa. 8. Barazki-mota. Txanpon. 9. Nork atzikia. Kasik. Hodi. 10. Zori-jokoa. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1. Botikak. 2. Arautegi. Alderdi troskista. 3. Marrazki. Baldintzetan. Nitrogenoa. 4. Helioa. Bokala. Heri handia. 5. Nafarroako ibaia. Ezinegona. 6. Mediterraneoko irla. Bokala. 7. Jirak. Boroa. Kontsonante bustia. 8. Bat. Aderantziz, masurioa. Klera. 9. Informazio zehatza. Estekatu. 10. Areriotasun.

Soluzioa

10. Etsatasun. 9. Datua. Lotu. 7. Birak. B. Tt. 8. I. am. Ktsua. 5. Ega. Harra. 6. Sardina. A. 3. Irudi. Ba. N. 4. He. A. Hirra. 1. Sendagaiak. 2. Araudi. LKI. *Goitik behera* 9. Ak. Ia. Tutu. 10. Kina. Atan. 7. A. Biribila. 8. Harra. Sos. 5. Adi. Hik. Ai. 6. Gi. Han. K. T. 3. Nau. Arrats. 4. Duda. Damua. 1. Saihesbide. Erregai. Ai. *Ezker eskuma*

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

XVI. mendeko zein jauregiren lorategitik ikus dezakegu zubi hau?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra Bergaran izan zen. Noiz?
A- 1978ko azaroan
B- 1978ko irailean
C- 1980ko abenduan
2. Zein talderen aurka jokatu du nesken futbol taldeak Kopako finala?
A- Usurbil
B- Oiartzun
C- Antoniano
3. Cirque du Soleil-eko zein ikuskizunetan hartzen du parte Virginia Imazek?
A- Alegria
B- La Nouba
C- Quidam



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Manuel Mondragon**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Manueli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **1969 / Reteigi I**
Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA _____

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Koipesol
ekilore-olioa, litroa
129 PTA!

Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Berrogeita lau urteko emakume hau "La Union" tabernako arduraduna da duela bost urtetik. Hala ere, ikasketak amaittu zittuanetik bertan dihardu lanian gurasuekin batera. Azkenengo 70 urtian da Mujika familixiarena taberna hau.

Tabernako lana gogorra ei da...

Bai, oso, gaiñera, gogorra be.

Zer da gogorrena?

Edanda datorren jendia aguantau bihar izatia.

Baiña bezeruekin harreman ona daukazu?

Bai, orokorrian bai.

Gure herrixan asko edaten da?

Buenooo! Askok.

Zeuk zer edaten dozu?

Neuk ura besterik ez.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Ekonomilarixa, baiña azkenian batxillergua bukatu neban eta kitto.

Denpora librian, zer egittia gustatzen jatzu?

Leitzia, zinera jutia, antzerkixa be asko gustatzen jat...

Txotxongilluak ikusten egon zara?

Bai, ahal izan doten emanaldi danetara jun naiz.

Eta zein ikuskizun izan da gehixen gustau jatzuna?

Egixa esan, danak gustatu jat, baiña Laura Kibelena batez be; ikusgarrixa zan hankekin zertzuk egitten zittuan.

Ze liburu mota gustatzen jatzu?

Danetik pixkat.

Liburu bat?

"El nombre de la rosa".

Telebisiñua, irratixa ala egunkarixa?

Aukeran, egunkarixa.

Begoña Mujika

Eta zein da gehixen irakurtzen dozun atala?

Munduko albistiak, hemen ia ondo dakigu-ta zer pasatzen dan.

Horoskopua irakurtzen dozu?

Bai, baiña egunkariko horoskopuak esaten dostenari ez jat kasorik egitten.

Ze zeinutakua zara?

Virgo.

Uda datorrela-ta, zaintzen zara?

Dietarik egitten dozu?

Normalian ez, baiña aurten pixkat zaintzen nabil, ia kilo batzuk kentzen dittudan.

Oporretara nora juteko asmua daukazu?

Urtero Arbizura jutun gara, Naparruako herri txiki batera.

Bergarako txokorik polittena?

Bergaran toki polit asko dago, baiña bat esatekotan, Usondoko parkia.

Bihar goizian, ze notiziakin gustatuko litzakizu hastia eguna?

Gustura entzungo neuke PP eta PSOE politika mundutik desagertu dirala, eta preso eta errefuxiatu danak etxian darella.

Zeure bizitza pertsonalian, berriz, ze eskatuko zontzake mende berrixari?

Orain arte bezala jarraitzia.



Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:
maiatzetik aurrera, afariak egunero ematen hasiko dela.

Ongi etorri denoi.



San Martzial Txiki, 1935

Bergarako Aberri eta Izarra futbol taldeek 1935. urtean elkarrekin ospatutako San Martzial Txikiko jaiko argazkia da aste honetakoa. Aberri taldea Zubietako gazteek osatu zuten eta inguruko auzoetako mutilak ere aritzen ziren taldean. Aberrikoek taldearen izena aldatu behar izan omen zuten, Miguel Primo de Rivera diktadorearen aginduz. Ondorioz, Aurrera euskal izenarekin jarraitu zuten futboleko jokatzeko.

Esan bezala, 1935ean, karakola-jan eder bat egin zuten bi taldeetako jokalariek; Manuel "Etxe-Txiki"k eta Roman Sasiain "Txopua"k egin zituzten sukaldari lanak. Esan beharrik ez dago giroa primerakoa izan zela. Bertan bildu zirenak hain kalitate oneko karakolak non batutakoak ziren jakin nahi zuten eta Beniño enterradoreak kanposantu inguruan bildutakoak

zirela erantzun zien. Bat baino gehiagori tripak nahastuko zitzaizkion, baina, antza denez, inor ez zen larritu. Meritu guztia sukaldariena zela esan zien Beniñok.

Guztiak identifikatzea ezinezkoa izan den arren, hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Telesforo Gabilondo (zapia praktetik zintzilik duena), Felix Agirre, Santi Aiastui eta Balentin Eguren. Eskumarago, berriz, Luciano Garitano, Pako Gallastegi, Toribio Aranguren, Ezekiel Urriategi eta Enrique Durana.

Jarrita: Isidro Alberdi, Nicolas Larrañaga, Fermin Agirre, Lorenzo Juaristi, Hilario Unzurrunzaga, Bitxorio Arriaran, Ascensio Azpiazu (aurrerago), Martin Gallastegi (belauniko), Bentura Argiarro eta Ignacio Ibarzabal.

Argazkia: Bixente Jauregi "Altzeta"

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Berriro entzun

Berriro entzun

AUDIFONO DIGITAL BERRIEKIN SOINU DIGITAL GARBIENA EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITU

● Mikrokanala



la-ia ikustezina

● Intra-Aurikularra



Diskrezio osoa

● Retroaurikularra



Betiko laguntza

DOHAINEKO ETA KONPROMEZU GABEKO ENTZUMEN AZTERKETA ELEKTRONIKOA



URETARAKO TAPOIAK URAREKIN GOZATU!



- Ertsiak
- Eragikorrak
- Zure neurrietara egokituak
- Erosoak

R.P.S. 164/99 zkia.

GAES

%10aren deskontua audifono berrian, zaharra uzteagatik, eta urte baterako pilak dohainik.
Eta gainera apari zaragani bat zuretzat.

GAES MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



Berriztua



Peugeot 206 Zeuk jarri muga



1.420.000* pta.tik aurrera

*BEZ; matrikulazio zergak Prever-ekin; eta promozioak barne

Alai Garajea

943 76 22 96. Urarte 12, Bergara.
Peugeot zerbitzu ofizial berria

206



PEUGEOT



OMU
ZERAMIKAK

**Zeramika,
arte
unibertsala**

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan



**Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE**